

Lapurdikoko mintzoen aurkezpen dialektologikoa¹

A dialectological introduction to Lapurdian forms of speech

Iñaki Camino*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: There are several constellations of innovations surrounding the province of Lapurdi in the geography of the Basque language. Anyhow, not all Lapurdians speak the same, there is a difference from one region to another; furthermore, there are some areas of innovation even within the province. In this session, I would like to present an outline of them. I would like to expose a detailed view of Lapurdi's innovations and I will show which areas of innovation belong to the various new language variants of the province: some are widespread, but others, on the contrary, are used in a smaller region. I will also briefly talk about the chronology of the characteristics of the dialect that is often called Navarrese-Lapurdiian.

KEYWORDS: Speeches from Lapurdi; Regional endemic innovations; Navarrese-Lapurdiian dialect.

LABURPENA: *Lapurdi inguratzen duten berrikuntzen konstelazio franko dago euskararen geografian, baina lapurtar guztiak ez dira berdin mintzatzen, eskualde batetik bestera aldea dago, badira berrikuntza-eremuak Lapurdi barrenean ere, eta horien eskema aurkezten dut saio honetan. Ikuspegi xehea dakart Lapurdiko berrikuntzez eta erakusten dut zein berrikuntza-eremutakoak diren Lapurdiko hainbat eta hainbat hizkuntza-aldaera berri: batzuk hedadura handikoak dira, baina beste batzuk eskualde tipikoan baliatzen dira. Nafar-lapurtarra deitu ohi den euskalkiaren ezaugarrien kronologiaz ere mintzo naiz llabur.*

HITZ GAKOAK: *Lapurdikoko mintzoak; eskualdeko berrikuntza endemikoak; euskalki nafar-lapurtarra.*

¹ Ikerlan honek bi egitasmoren laguntza bildu du: 1) Monumenta linguae vasconum (VI): Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca. MEC: PID2020-118445GB-I00. 2) Lingüística Diacrónica, Tipología e Historia del Euskera. EJ: IT1534-22.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Iñaki Camino. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatean ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – inyaki.camino@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-1852-174X>

Nola aipatu / How to cite: Camino, Iñaki (2023). «Lapurdikoko mintzoen aurkezpen dialektologikoa», *ASJU*, 57 (1-2), 183-207. (<https://doi.org/10.1387/asju.25949>).

Jasoa/Received: 2022-10-31; Onartua/Accepted: 2023-01-13.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. Lapurdiko euskara ez dago bakarturik

1.1. Lapurdin gaindi berrikuntzen bidez zein isoglosa-sorta finkatu diren adierazten dut dialektologiaren ikuspegitik, nahiz ez daitekeen aise jakin historian zehar nolaz joan diren garatzen; izan ere, berrikuntza ugari aurrehistorikoak dira eta testu zaharren eskasa dugu Lapurdi barreneko eskualdeetan. Lehen-lehenik nahi dut adierazi «Lapurdiko euskara» vs. «Baxenabarreko euskara» terminologiak itotzen bezala dituela «Ipar Euskal Herriko barnealdeko euskara»ren egituraren eta izaeraren *ñabardurak*, zeinek «Lapurdi mendebaleko euskara» / «Lapurdi erdialdeko euskara» / «Lapurdi ekialdeko euskara» eta «Baxenabarre mendebaleko euskara» adigaiak lagun, hobeki argitzen ahal baitituzte Ipar Euskal Herrian hondarreko mendeetan gertatu diren hizkuntza-berrikuntzen ibilera geografikoak, Lapurdiko mintzoek elkarrekin dituzten erlazio, batasun edo etenak, eta baita mintzo horien nortasuna eta izaera ere.

1.2. Lapurdiko berrikuntza guztiak ez dira Lapurdin sortu, guztiak ez dira lapurtarren berrikuntza endemikoak —lapurtarrek baizik baliatzen ez dituztenak—, eta guztiak ez dira Lapurdi guztian gaindi hedatu. Euskararen berrikuntza-eremu batekoak baino gehiagokoak direnez, Lapurdiko berrikuntzen eremuak dakartzat taula honetan, bakoi-tzaren hedadura-eremuaren arabera. Adierazi dut testuetan zein mendetan ageri den.

Euskal Herriko ekialde zabalean; cf. Camino (2022: 197-230)	— polaritate negatiboko izenordain zehaztugabeen <i>n-</i> : <i>nehor...</i> (xvi) — iraganeko Nor aditz trinkoen hasierako <i>nin-</i> , <i>hin-</i> , <i>gin-</i> , <i>zin-</i> : <i>nindabilan</i> , <i>ginabiltzan...</i> (xvi) — 60, 70, 80, 90 zenbakien izendapen berria: <i>hiruretan hoge</i> (xvii)
Euskal Herriko erdialde murriztean	— pertsona-izenordain hanpatu berriak: <i>neroni...</i> (xvi) — 3. pertsonaren datiboko <i>ote</i> morfema plurala: <i>zaiote</i> ‘zaie’ (xvii)
Euskal Herriko eskuinaldeko eskualde zabalean	— iraganeko <i>tempuseko</i> adizki trinko analogiko <i>a-</i> dunak: <i>zagoen</i> ‘zegoen’, <i>zabilan</i> ‘zebilen’ (Etxeparek eta Leizarragak xvian)
euskalki nafar-lapurtarrean ²	— mailegu-hitzen <i>-oin</i> bukaera: <i>arrazoin...</i> (xvi) — <i>-ño</i> atzizki txikigarria, Lapurdiko itsas hegira heldu ez dena (Duhalde 2023: 131): <i>haurño</i> , <i>irriño...</i> (xix) — kausatiboaren kutsuan edo garaia nahiz gertaera adierazteko <i>kari</i> / <i>karia</i> / <i>kari(az)</i> / <i>karietara(t)</i> ibiltzea (xvii) ³ — <i>-xet</i> aldaera indartu berranalizatua (xix)
Gipuzkoan eta Lapurdin	— Lapurdiko itsas-hegiko eta Gipuzkoako <i>zka</i> pluralgilea, Lapurdin <i>jakin</i> -en trinkoetaraino heldurik: <i>dakizka</i> ‘dakizki’ (xviii)
Lapurdiko eta Nafarroako eskualde batzuetan	— <i>-(t)zi</i> pluralgilea: <i>goazi</i> ‘goaz’ (xvii) — pluraleko erakusleen zehar-kasuen aldaera berriak: <i>hoken</i> ‘hauen’ & <i>haukien</i> , <i>beken</i> ‘haien’ & <i>bekien</i> (xvii)
Lapurdi barnean	— Hazparnealdeko <i>i</i> pluralgilea * <i>eradun</i> -en: <i>zinaitala</i> ‘zenizkidala’ (xviii) — iraganeko adizkien <i>n</i> analogikoa Hazparneko eskualdean: <i>zangon</i> ‘zegoen’, <i>zaingola</i> ‘zizkiola’ (xviii)

² Palatalizazio-maila apala ez da nafar-lapurteraren tasun definitzaile egokienetarik: *i* ondoko ozenak Lapurdiko itsas hegian eta Bardozen palatalizatzen dira eta Baxenabarreko ekialdean, berriz, Amikuzen, Landibarren eta Oztibarren; Garazin ere hein handian. Despalatalizazioaren azterketa geografiko xheagoa behar dugu jakiteko ea Lapurdiko eta Baxenabarreko eskualde guztietan hein berekoa ote den.

³ Lapurdin Axularrek eta Harizmendik *kariaz* dakarte xvian, baina xviiatik beretik ageri da *ariaz* aldaera usu, bereziki Lapurdin; orobat, Baxenabarren Gotzon Garatek *karietarat* (Aiherra) eta *zela karia*

1.3. Arestiko taulan Lapurdiko euskara ez da bakarturik ageri: berrikuntza batzuk ditu ez baitira Lapurdi guztira hedatzen, baina erakusten ere digu badituela beste berrikuntza batzuk Ipar Euskal Herriko eskualde batzuekin edo guztiekin partekatzen dituenak, eta badirela beste tasun berri batzuk Lapurdin, ondoko Nafarroako eta Gipuzkoako euskaldunekin partekatuak, eta baita Euskal Herriko erdiguneko jendeekin onduak ere.

2. Muga dialektalak Lapurdi barrenean

2.1. Ez dago bere-berezko ezaugarri berri sistematikoen sail bat Lapurdin baizik ez dena eta Lapurdi guztia harrapatzen duena, baina badira barne-bereizketak Lapurdin.⁴

2.2. Irtenbide duina da Lapurdiko mintzoak eskualdeka aztertzea, betiere Ipar Euskal Herriko euskararen ezagutzaren talaiatik so eginez; izan ere, badira bi eskualde aski urruntzen baitira erdiguneko Lapurdiko eremu homogeneoenetik, eta preseski, saihetsean dira biak: hizkuntza-ezaugarri berri arras markatuak dituzte eta haien tasun berezienak ez dira Lapurdi gehienean ibiltzen. Bi mintzoetarik bata itsas hegikoa da, Hego Euskal Herrira so baititu ezaugarri berri batzuk, Gipuzkoa edo Nafarroara, ez baitira Ipar Euskal Herriko mintzoetan beste inon ageri. Lapurdiko bigarren eskualde berezia ipar-ekialdean da, kaskoina eta euskara elkartzen diren Aturrialdean, gehienik Bardozen.

2.3. Hondarreko mendeetan Lapurdiko eta Baxenabarreko mintzoek bateratze-prozesu bat ukan dute, eta baldin bateratze horrek euskalki nafar-lapur-tarraren sorrera eragin badu, pentsa daiteke gizarte-oinarri bat edo bi herrialdeetako jendeen arteko harreman hertsia gertatu dela, baina gizarteko eta hizkuntzako errealitate hau isla lezaketan ezaugarri berri gramatikal sendoak ez dira ugari, ezta zaharrak ere. Historiaurrekoa da hitz hasierako *x-*, ondoko mintzoetan *tx-* dena: *xakhur*, *xerri*, *xilintxau* ‘zintzilik’, *xirula*, *xitxi* ‘haragia’, *xoko*, *xori*, *xuri*... Hego Euskal Herrian eta peko Erronkari eta Zaraitzuko ibarretan bezala, zuberotarrek *tx-* egiten dute, baina Mitxelena zioen (1977: 191) baita *x-* ere, bai kide ez palatalizatua duelarik (*xáball/zábal*) bai ez duelarik: *xabū* ‘xaboia’, *xáhal*, *xábū*, *xéde*, *xedé(r)a*. Litekeena da zuberotarren *tx-* hori berria izatea, Ipar Euskal Herri guztiko *x-* tasunaren batasuna Zuberoan hautsi zukeena, nahiz ez dakigun xuxen honela izan ote zen, baina euskalki nafar-lapur-tarraren sorrera-garaia aztertzeo garrantzia du tasun honek.

2.4. Ipar Euskal Herriko barnealdeko euskaldunek —geografia-eremu horren barrenean dakuskigu Baxenabarreko eskualde ugari— eta artzain-gizarte sendoa izan diren eta oraino ere badiren zuberotarrek hizkuntza-ezaugarri berri bateratzaile ugari partekatzen dute elkarrekin, XIX. mendea baino lehenagoko liburu zaharretan ageri

(Landibarre) bildu zituen. Emile Larrek *karia* izena zerabilen (ОЕН). Zuberoan sekula ez da forma hau ibili, ez ahoz ez idatziz, baina J. L. Davantek diost hasia dela oraintsu idatzizkoan agertzen.

⁴ Konparazione, erakusle pluraletan kasu abs. eta erg.-aren bereizketa dago: berrizaturik, Larresoro eta ondoko herrietako euskaldunek erakusle pluralerako abs. eta erg.-etan *hawk* vs. *hau(i)ek* / *hoik* vs. *hoiek* / *hek* vs. *heiek* (& *hek*) darabiltzate. Aturrialdeko Beskoitzen ere bai: *hawk* vs. *hauek* / *hoik* vs. *hoiek* / *hek* vs. *heiek* (Duhau 1993: 47). Mugarren eta Urketan ere bereizketa dago (EHHA). Ahetzen (*auk* vs *hauek*) eta Itsasun (*hawk* vs *hauiek*) 1. mailan, baina bi herriotan EHHAk ez dakar bereizketarik 2. eta 3. mailatan. Hazpainen ez dago bereizketarik ez ein mailatan (Epelde 2004a: 287), ezta Bardozen ere (EHHA).

direnak, eta horregatik ere uler liteke nafar-lapurtarra ez dela errealitate edo euskalki zaharra, hondarreko garaian indartu den errealitatea baizik. Testuetan badira aspal-diagokoak diren ezaugarri berri bateratzaile franko, Zuberoan eta Ipar Euskal Herriko barnealdean baliatzen baitira: euskalki nafar-lapurtarra baino errealitate zaharragoia adieraz lezaketek.

2.5. Bonaparte printzeak Lapurdiko mintzoak elkarrengandik nola bereizi zituen eta lapurtera eta bi behe-nafarrerak nola funtsatu zituen jakiteko, Pedro Irizarren 1981eko lanera jo daiteke. Koldo Zuazok euskalki nafar-lapurtarra proposatzen du 1998tik, zeinaren baitan itsas hegiko mintzoak berezko nortasuna baitu. Eraiki duen mapan, Ahetze, Senpere, Ainhoa eta Sara arteko hizkuntza-eskualdeak nafar-lapurtarren mendebaleko aldaera eratzen du. Aldiz, Aturrialdea eta Hazparnealdea nafar-lapurtarren ekialdeko aldaeran dakuski. Dialektoaren mendebaleko eta ekialdeko aldaeren arteko hizkuntza-eskualdea eratzen du Lapurdiko erdiguneak, barrenean hartzen baititu Basusarri, Arbona, Arrangoitze, Milafranga, Uztaritze, Jatsu, Larresoro, Zuraide, Ezpeleta, Haltsu, Kanbo eta Itsasu herrietako mintzoak. Ere mu hori xeheki aztertu zuen Irantz Epeldek eta Uztaritze-Larresoro eskualdeko mintzoa Hazparnealdekoarekin alderatu zuen, erakutsi baitzuen alderdi batetik bestera aldaketak eta berrikuntzak *continuum* batean gertatuz doazela (2003, 2004a, 2004b). Lapurdi barrenean ezaugarri desberdintzaileek ez dute ukipengune errepikatu bat eratzen, isoglosak ez dira guztiak elkarrengana eta gune bakar batera biltzen, horregatik, Bonapartek egin zituen bezalako Lapurdi barreneko muga dialektal kualitatibo eta kategorikoak ezartzea ez da aise.

3. Lapurdiko euskara hedadura handiko berrikuntza-eremuen barrenean

3.1. Ipar Euskal Herri guztiko berrikuntzak Lapurdin

Aurkezten ditudan ezaugarriak Ipar Euskal Herrian sorturikako berrikuntzak dira, ez Euskal Herriko erdigunean sorturik gerora Ipar Euskal Herrira jo dutenak. Euskaldun lapurtarrek darabiltzate, baina Ipar Euskal Herri guztian ibiltzen dira. Labur beharrez ez dakart ñabardurarik, xehetasun gehiago nahi duenak Camino (2022) liburura jo dezake.

1. sudurkari aitzineko <i>o > u</i> aldaketa zaharra; Bidasoaldean eta Baztanen erakusleetan <i>un-</i>	2. Erronkarin eta Zaraitzun bezala, <i>zoin, zonbat, zonbait</i> saila; Zuberoan <i>zun-</i>
3. <i>zernahi</i> izenordaina, Lapurdiko liburuetan xvii. mendetik dagoena; Zugarramurdi, Luzaide, Aezkoa eta Zaraitzun ere ageri da	4. determinazio-sistema konplexua berriztatuturik (?) abs.-ko <i>batzu</i> —Zuberoan <i>batzü</i> —; cf. Manterola (2015: 528-532)
5. mugagabeen jokatzeko da <i>bat</i> determinatzaile zehaztugabea: <i>batetan...</i>	6. <i>ene</i> genitiboaren analogiaz <i>eni</i> datibo berria; Lapurdi mendebalean <i>neri</i> berria dago
7. espazioa nahiz denbora adierazteko <i>-ra buruz = -ri buruz</i> norabide adlatiboa	8. <i>gaindi</i> prosekutiboa; Zuberoan <i>gaini</i>
9. <i>-xet</i> aldaera indartu berranalizatua: <i>hanxet...</i> , Zuberoan <i>-xek</i> ; itsas hegitik eskuin doa Zaraitzu eta Erronkariraino, baina bai-gorriarek ez darabilte	10. «galdegaia + adizki laguntzailea + adizki nagusia» egitura hanpatzailea: <i>nausia zen joan gerlaat</i> Larresoron (Epelde 2003: 211)

11. <i>lagundu</i> Nor-Nork sailean jokatzeara: <i>gogo onez lagundu gintuzten beraz</i> (Zerbitzari)	12. <i>izan</i> eta <i>edun</i> -en baldintza irrealen aditz-izena ibiltzea: <i>-t(z)en balitz, balu...</i>
13. baldintzaren apodosia jatorriz ahalekoak diren adizkien bidez eratzea: <i>anglesa banintz, erran nezake</i> (P. Larzabal)	14. baldintzan aditz jokaturagabea + <i>-t(z)ekotz</i> baliatzea
15. erlatibozko perpausak atzizkirik gabe eratzea: <i>erran tenoreko jin tzen</i> Larresoron (Epelde 2003: 200)	16. <i>parenthetical</i> deritzan <i>omen</i> partikula ibiltzea; cf. Etxepare & Uria (2016: 273); Zaldubi senperrak honela dakar: <i>gero hau erran zion omen Birjinak Bernadetari</i>
17. <i>bainan / bena</i> aurkaritza perpausetan: <i>ez dut erran oilanda, bainan oiloa</i> (P. Larzabal)	18. murrizketa-perpausetan <i>baizik / bezik</i> : <i>ez dute jaten egunean eguneko poxia baizik</i> (Duvoisin)

3.2. Ekialde zabaleko berrikuntzak Lapurdin

Aurkeztu berri ditudan ezaugarriak Ipar Euskal Herri guztikoak diren aldetik, definizioz dira Lapurdikoak ere. Orain aurkeztuko dudana ezaugarri berrien sail hau, ordea, ez da beti Ipar Euskal Herri guztikoa izaten, Euskal Herriko ekialde zabalekoak baizik. Komunzki, Baxenabarren erabiltzen dira sail honetako ezaugarri berriak. Nafarroako ekialdeko hainbat alderditara sarbidea duten Ipar Euskal Herriko berrikuntzat ere definitzen ahal ditugu. Kasu batzuetan Zuberoan ere ibiltzen dira, baina beste kasu batzuetan berrikuntza ez da Zuberoara heldu. Berdin erran daiteke Lapurdiri dagokionez ere: tasun hauetarik batzuk Lapurdin ibiltzen dira, baina beste batzuk ez. Gainera, Lapurdin ibiltzen diren batzuk ez dira Lapurdi guztian baliatzen, eta beraz, horien kasuan ulertuko dugu Lapurdiko ekialdean badirela baina Lapurdiko mendebaleragoko eskualdeetan ez. Hona zein diren ezaugarri horiek:

1. genitiboko atzizkia <i>-a-ren</i> > <i>-a-in</i> laburtzea; cf. Epelde (2004b: 666)	2. ergatibo pluralean <i>-ek</i> ibiltzea; cf. Manterola (2015: 339, 362)
3. polaritate negatiboko izenordain zehaztugabeetan <i>nehor, nehoiz, nehon / nihor, nihoiz, nihun</i> saila	4. <i>norna(h)i</i> izenordain zehazgabea; saileko beste kide batzuek (<i>nunahi...</i>) hedadura dute eta Hego Euskal Herrikoak dira ere
5. latineko mailegutan <i>-tione(m)</i> > <i>-zione</i>	6. <i>-etan hogoi / (h)ogei</i> erako zenbaki gorak
7. <i>ko</i> izen sintagma konparatiboetan: <i>lur eta ilbargiak baino handiagoko meta egiten zuten</i> (Hiribarren)	8. adberbio hanpatu errepikatuak mugatzaila darama bigarren atalean: <i>hola geldi-geldia egon gabe</i> (P. Larzabal)
9. aldizkakotasuna adierazteko ablatiboa: <i>zortzitik edo hamabortzetik larre urrunetara orgekin othe biltzera goan</i> (Duvoisin)	10. inesiboak adierazten du adina: <i>hil zen hirur hogoi eta hirur urthetan</i> (Larregi)
11. izenordain zehazgabeen aldaerak: <i>nornai, noiznai, nolana, nunai, zernai / norbeit, noapeit, noizpait, nolazpait, nunbeit, zerbeit</i> , konparazione, Saran; cf. Zuazo (2018: 32)	12. aditz nagusiaren bukaerako <i>c -n</i> edo <i>-l</i> deanean <i>en</i> da etorkizuneko atzizkia

13. adlatiboa da aditz zenbaiten osagarria: cf. <i>utzi... ra</i>	14. datiboarekiko aditz-komunztadurarik eza
15. iraganeko adizki trinkoek <i>nin-</i> , <i>hin-</i> , <i>gin-</i> , <i>zin-</i> hasiera izatea	16. «aditz-izen inesiboa + <i>a(b)al</i> izen gramatikalizatua + adizki laguntzailea»
17. <i>(b)eldu izan</i> 'etorri'-ren balio puntukaria; Zuberoan <i>horra izan</i>	18. * <i>iron</i> -en erabilera ahalekoetan, emeki ahulduz badoa ere
19. <i>zue</i> morfemaren <i>zie</i> palatalizazioa 2. pertsonan; Lapurdin Aturrialdean baizik ez	20. denborazko perpausetan <i>larik: bear eztelaiak jinen da</i> (Epelde 2003: 206)
21. kausazko <i>lakotz</i> partikula	22. kausazko <i>bait</i> partikula
23. <i>bait</i> partikularen erlatibozko erabilera; cf. Larresoroko etsenplua: <i>Erreka non dago? Eben or pasatzen baitzia zubia, hor</i> (Epelde 2003: 199)	24. <i>uste + edun</i> edo <i>ustez eta</i> sekuentziak <i>-en</i> atzizkia darama: <i>badut uste eztauen deus onik</i> Larresoron (Epelde 2003: 194); alta, Lapurdi mendebalean <i>-ela</i> ibiltzen da

3.3. Ipar Euskal Herri barneko berrikuntzak Lapurdin

Ipar Euskal Herriko barnealdean gauzaturik, Lapurdin edo Lapurdiko eskualde zenbaitetan badiren berrikuntzen saila dakart orain:

1. <i>-ua-</i> sekuentzian <i>u</i> palatalizatu da ⁵	2. <i>-ue-</i> sekuentzian <i>-ie-</i> palatalizazioa ⁶
3. bi lexemaren arteko mugan afrikazioa, txistukariet eratzten dituzten sandhi batzuetan ⁷	4. mailegu berriak ez diren hitzetan ere txistukari igurzukari ozenak bokalen artean
5. <i>vrhv > vvhv: ahotz</i> 'arotza', <i>gehezi</i> 'gerezia', <i>ihetsi</i> 'irentsi' Beskoitzen (Duhau 1993: 26); baita <i>v</i> artean trabari ahostunak aldatzea ere ⁸	6. Baxenabarren hedadura duen <i>hak</i> 'hark' Bardozen baizik ez dakar Lapurdin <i>EHHAk</i>
7. «aditz partiz. + mugatzailea»: <i>-a + a > aia:</i> Saran <i>botaia, gostaia...</i> (Zuazo 2018: 21)	8. datibo pluralean <i>-er</i> atzizki-aldaera Zuberoatik Lapurdi erdiguneraino
9. Lapurdiko erdialdean soziaz. <i>-kin</i> & <i>-kila</i>	10. adlatiboan <i>-(a)la</i> & <i>-(a)lat</i> aldaerak ⁹
11. zuhaitzen <i>tze</i> atzizkia Bardozen: <i>intzaurtze;</i> Lapurdi gehiengan <i>-ondo</i>	12. zuketa eta xuketa Aturrialdean

⁵ Lapurdiko hegoaldea gordetzaila da, *ua* dago, eta itsas hegian *u(b)a*. Lapurdiko erdialde eta ekialdean *uia*, Aturrialdean barne, baina palatalizaturik bada *ia* ere Lapurdiko erdialde eta ekialdean. Bonapartek adierazi bezala, hazpandarrek *üa* ahoskatzen dute.

⁶ Alta, XIX. mendeko testuetan *ie > ii* aldaketa ageri da, Baigorrialderean eta Hazparne hiriaren artean lehenik, baina ezker-eskuin hedatuz joan da gero berrikuntza.

⁷ *serorak tzién* (Larresoro) / *kaalak tzién* (Makea) / *larreak tziénak* (Hazparne); cf. *EHHA*.

⁸ cf. Beskoitzeko *pohore* 'boterea', *zabal* 'zabala', *zehirri* 'zedarria' (Duhau 1993: 25-26).

⁹ Eskualde batzuetan hitz *-a-*dunei lotzen zaie *(a)la(t)*, baina beste batzuetan bokal orori. Manterolak *han* erakusleko bokala dakusa oinarrian: **han-la* (> **halla*) proposatzen du (2015: 260).

13. monoptongazioa <i>izan</i> , * <i>edin</i> eta <i>edun</i> aditzetan: <i>niz</i> 'naiz', <i>zite</i> 'zaitez', <i>gitu</i> 'gaitu'; cf. Epelde (2004b: 674)	14. <i>zaut</i> 'zait', <i>zaun</i> 'zain'... Lapurdiko ekialdean; itsas hegia eta Ainhoa arteko eskualdean, berriz, <i>zait</i> , <i>zaiku</i> ... (Irizar 1997)
15. Bardozen eta Baxenabarren <i>izan</i> -en <i>-nd-</i> & <i>-nt-</i> : <i>ginden</i> 'ginen', <i>zinden</i> , <i>xinden</i> ...	16. (<i>e</i>) <i>lakoan</i> atzizkia kausazkoetan
17. <i>a</i> morfema <i>baitez</i> galdera perpausetan	18. (<i>e</i>) <i>n-ez</i> zehargalderetan
19. baldintzan eta moduzko perpausetan <i>en ber</i> konjuntzioa: <i>tenorian arribatzen den ber bardin zatak</i> (Bardoze, EHHA)	

3.4. Ipar Euskal Herriko ezaugarri berrien geruza kronologikoez

3.4.1. Geografia-hedadura iduria duten hizkuntza-osagaien garaia edo denbora-sekuentzia aztertzeko, aprioriko halako ikuspegia dakart, taula batera lau sail geografiko ekarririk, lekurik ezaz zuberotarren berrikuntza endemikoak taularatu gabe. Zuberotar-erronkariarrek partekatu dituzten berrikuntza eskusiboak zaharrak izan daitezke, baina Zuberoako berrikuntzen beste sorta bat ekialde zabaleko sailari dagokio: ekialde hertsiko endemikoak ez diren Zuberoako berrikuntzak dira horiek, ekialde zabalekoak.

3.4.2. Ipar Euskal Herri guztiko ezaugarri berriek denbora behar izan dukete eremuko bazter guztietara heltzeko. Zaraitzu eta Erronkariko mintzoak Ipar Euskal Herriko berrikuntzen ohiko eragin-eremua direnez, ez da harrizteko Ipar Euskal Herri guztiko berrikuntzak bi ibar horietan agertzea, baina Ipar Euskal Herri guztiko berrikuntzak ez badira Nafarroako ekialdeko zenbait ibarretara heldu, eman dezagun, Eguesibar, Artzibar, Aezkoa, Erroibar Esteribar edo Baztanera, ez lukete antzinatasun handirik ukan beharko, ulerturik espainiarrek xvi. mendean Ipar Euskal Herriaren eta Nafarroaren arteko muga gotortu zutela eta ondotik iparretik ekialdeko nafarren mintzora berrikuntza gutiago iragan «zatekeela». Teorikoki, Nafarroako ekialdeko ibarretara heldu ez diren Ipar Euskal Herri guztiko ezaugarri berriek ez lukete arraz zaharrak izan behar. Badira, bestalde, Ipar Euskal Herriko berrikuntza batzuk, hondarreko garaian Ipar Euskal Herri guztira hedatu baitira, baina Hegoaldera iragan gabe. Frantsesaren eraginez gertaturik, hondar garaikoak dira baitezpada, eta ez dituz horiek taularatu.

3.4.3. Ekialde zabalaren hizkuntza-ideiak iradokitzen duen garaia da Frantzia eta Espainia arteko muga politiko-administratiboaren eraginak egun bezainbat indar ez zuena, Ipar Euskal Herriaren sortu berrikuntzak Nafarroako ekialdeko ibar frankotara heltzen zirena, inoiz baita Iruñeriraino ere. Ekialde zabal horretako ezaugarriak oro ez ziren Lapurdiko mendebalera edo Zuberoara heldu: ezaugarri berri horien hedadura geografikoa historian zehar ulertzeko, zehaztasun kronologikoz ezagutu beharko genituzke Ipar Euskal Herriko gizataldeen barne-joerak eta gizarteko harreman-sareak.

3.4.4. Hondarreko mendeetan Lapurdiko eta Baxenabarreko euskaldunen mintzok bateratze-prozesu bat ukan badute, eta zuberotarrek eta Ipar Euskal Herriko barnealdeko euskaldunek ezaugarri berri bateratzaile ugari partekatzen badute, uler

liteke nafar-lapurterra ez dela euskalki zaharra, hondarreko mendeetako baizik, nafar-lapurtarraren bereizgarriak ez direla horren aspaldikoak, badirela aspaldiagoko ezaugarri berri bateratzaileak Zuberoan eta Ipar Euskal Herriko barnealdean hedaturik. Halaz, ondotik dakardan taulan teoriarik beheko kokagunera bildu beharko lukete nafar-lapurtarraren berrikuntzek, mende berankoragoetara, eta, aldiz, Ipar Euskal Herriko barnealde-ekialdeko ezaugarri berri bateratzaileek teoriarik iragan zaharragoko «multzo» edo «geruza» kronologiko bat eratu beharko lukete. Ez da arrazoirik pentsatzeko hondarreko garaian Ipar Euskal Herriko barnealdeko hizkuntza-ezaugarriak berritzeko joera eten dela edo barnealdeko euskaldun ipartarrek ez dutela elkarrekin berritatzatzen jarraitu, nahiz gero berrikuntza horietarik batzuk Lapurdiko mendebalera edo Zuberoara heldu ez.

3.4.5. Taulak mendeka aurkezten dizkigu Ipar Euskal Herriko hizkuntza-berrikuntzak:

Ipar EH-ko berrikuntzak	Ipar Euskal Herri guztian	Nafar-lapurteran	Ipar EH-ko barnealdean	Ekialde zabalean
historiaurrea eta XVI. mendea	<ul style="list-style-type: none"> — <i>-o > u / _n</i> — <i>-bat</i> zenbatz. mugagabeen jokaturik — <i>batzu</i> — <i>gaindi</i> — «galdegaia + aditz laguntzailea + aditz nagusia» hurrenkera — <i>lagundu</i> Nor-Nork sailean — <i>bainan</i> adbertsati-boa 	<ul style="list-style-type: none"> — [hitz-hasieran <i>x-</i>] cf. § 2.3. — <i>-oin</i> hitz bukaera mailegutan 	<ul style="list-style-type: none"> — <i>-u > ü</i> palatalizazioa — <i>-er</i> datibo plurala — <i>-ki > -kila(n)</i> sozietiboan — adlatiboan <i>-(a)la(t)</i> — <i>-niz, giten, gitu...</i> monoptongatuak — <i>zuketa</i> — <i>xuketa</i> — galderazko <i>a</i> morfema — <i>-(e)n-(e)z</i> zehar-galderan 	<ul style="list-style-type: none"> — <i>-zione</i> hitz-bukaera — <i>-ek</i> ergatibo plurala — izenordain zehazgabeen <i>neh-</i> saila (Leiz. <i>nehor</i>, vs. Etxep. <i>ehor</i>) — <i>-en</i> etorkizuna aditz nagusian — iraganeko trinko-etako <i>nin-</i>, <i>hin-</i>, <i>gin-</i>, <i>zin-</i> — <i>*iron</i> oinarria adizkietan — <i>bait</i> erlatibozkoa¹⁰ — <i>bait</i> kausazkoa — <i>utzi</i> + adlatibo
XVII. mendea	<ul style="list-style-type: none"> — <i>zein, zen- > zoin, zon-</i> XVI → (Etxep. <i>zeinbait</i>, Leiz. eta Axul. <i>ze-</i>; Tartas <i>zo-</i>; Etxeberri Ziburukoak <i>Eliçarra-n zo-</i> darabilela dirudi) — <i>-t(z)e-kotz</i> baldintzan 	<ul style="list-style-type: none"> — <i>-kari</i> partikula — [ozenen despalatalizazioa; cf. § 1.2.; Pouvreauk <i>mainatu</i>] 	<ul style="list-style-type: none"> — Nor-Nori sailean <i>zaut</i> 'zait' eredia — <i>hark > hak</i> — <i>-i & -e > -u & -ü</i> — <i>-r(t)z > st</i> — zuhaitz-izenak eratzeko <i>tze</i> atzizkia — baldintzan eta mozdutuetan <i>-en ber</i> 	<ul style="list-style-type: none"> — 2. pers. pl. morf. <i>zue > zie</i> — <i>-etan</i> berria zenbakien sisteman — sozietibo adina adierazteko — ahala adierazteko <i>-t(z)en a(h)al</i> egitura — <i>etorri</i> aditzaren adizki trinkoen ordain heldu izan puntukaria

¹⁰ 1626ko gutun batean: *igorico darauat goutum bat, jaunac eman baytaraut galcerdy cetazco baten barnean* (Mitxelena 1964: 157).

Ipar EH-ko berrikuntzak	Ipar Euskal Herri guztian	Nafar-lapurteran	Ipar EH-ko barnealdean	Ekialde zabalean
xviii. mendea	— <i>zernabi</i> izord. — <i>-eni</i> 'niri' — adizki laguntzailea + <i>omen</i> erabileraren parentetikoak — murrizketa-perpausetako <i>baizik</i>		— <i>-a + a > aja</i>	— <i>-aren > -ain</i> laburdura genitiboan — mugatzailea duten adberbio errepikatuenak
xix. mendea	— berranalisi bidezko <i>-xet</i> — <i>-ra = -ri buruz</i>	— <i>-ño</i> txikigarria	— <i>-ie > ii</i> asimilazioa — <i>horko > horgo</i> — <i>izan</i> aditzeko <i>ginden, zinden</i> — <i>lakoan</i> kausala — <i>-ot(h)e</i> partikula estraposizioan	— <i>norna(h)i</i> — <i>is</i> konparatiboan <i>ko</i> morfema ibiltzea — <i>larik</i> denborazko atzizkia — <i>lakotz</i> kausazko atzizkia
xx. mendea	— <i>-ba</i> neutroa		— txistukari ozena bi bokalen artean — <i>hitzen</i> mugako afrikazio berria — <i>VrhV > VhV</i>	

3.5. Taularen balizko irakurketa bat

3.5.1. Ezaugarrien kronologia aintzat hartu behar du filologoak dialektologia lan-tzean, lekurik ezaz hemen horretan sakonduko ez badut ere. Aurreikus zitekeenez, Ipar Euskal Herriko barnealdeko ezaugarri berriek jarraitu dute menderen mende agertzen: aspaldikoak dira, eta ugari, gainera. Badira zaharrak diren Ipar Euskal Herri guztiko berrikuntzak ere, Nafarroara kasik iragan ez direnak: Ipar Euskal Herri guztiko ezaugarri berri eskusiboak dira, aldi oro erregulariki gertatu dira, eta ugari, gainera. Baina taulak dakarren oro ez da alde aurretiko usteek iradokitzen zigutena.

3.5.2. Pentsa litekeenaren aurka, ekialde zabaleko berrikuntzek ere jarraitu dute Nafarroako ekialdeko ibarretara xvi. mendeaz harat iragaten, ez da ondotik haien sorrera bakandu, Ipar Euskal Herrian sortzen eta Nafarroarat hedatzen jarraitu dute xvii, xviii eta xix. mendeetan barna. Lan-molde bertsuak izanik eta geografia-hurbiltasunagatik, Pirinioez bi alderdietako euskaldunek harreman zuzenean jarraitu dute, zeharkatu dute Frantzia eta Espainia arteko muga. Ez zen hau hasierako hipotesia.

3.5.3. Neke da nafar-lapurteraren ideia asetzen duten ezaugarri gramatikal sendoak aurkitzea. Euskalki honen periodizazioaz ezaugarriak aztertutik mintzatzean, gainera, ageri da berrikuntzak ez zaizkiola garai berankor bati atxikitzen. Euskalki nafar-lapurteraren bi berrikuntza aurrehistoriko daude taulan, baina bat Ipar Euskal Herri guztiko berrikuntza izan liteke, gerora Zuberoan berri berriztatu zena. Teorikoki bederen, bi tasun aurrehistoriko horiek ez lirateke berankorragotzat jo litekeen euskalki nafar-lapurteraren adierazle egokienak, baina nolahi ere den, sakonago landu behar dira nafar-lapurteraren gorpuztearen gaineko kronologia eta periodizazioa, ea zinez horren gorpuzte «berankorra» duen, izan ere, darabiltzagun aurreustek eta ezaugarrien kronologia ez dira egokitzen.

4. Lapurdi barreneko mintzoak

4.1. Lapurdiko mendebala

4.1.1. Estatusa dauka Lapurdiko itsas hegiko mintzoak euskal literaturan: obra sendo anitz idatzi dute eskualdeko euskal idazleek xvii. mendetik harat. Male-ruski, egun galtzen ari da Lapurdiko itsas hegiko eskualdeko folk *eskara*. Maitena Duhalderen azterketa berrian (2023) beste mintzo bat balitz bezala ageri da Lapurdiko hego-mendebaleko saila: Duhalderen datuetan itsas hegiko Hendaia, Biriatu, Urruña, Ziburu, Azkaine, Donibane Lohizune, Getaria eta Bidarteko etsenpluak ageri dira eta Arrangoitzen dakuski isoglosak. Zuazok (2018), berriz, itsas hegigitik haratagoko eskualdea aztertu du eta batera sentitzen ditu Ahetze, Senpere, Sara, Ainhoa, Zugarramurdi eta Urdazubiko euskara, barruti bakoitzean erdarek duten eragina ahantzi gabe (2018: 14).¹¹ Komunikazio-maila handiko eskualdea da hizkuntzaren alderditik Lapurdiko hego-mendebala. Ikusi batera ez du bere-berezko bilakabide edo berrikuntzarik. Nik, segurik, ez dut bere-berezko berrikuntzarik aurkitu, ez dut sumatu Sarako eskualdeaz kanpo baliatzen ez den muntzako ezaugarri berri berezirik Saran: berrikuntza eskusiboan eza ageri da Lapurdiko hego-mendebalean.

4.1.2. Lapurdiko mendebaleko euskaldunek berrikuntza batzuk partekatzen dituzte Bidasaldeko giputzekin eta Bortzirietako nafarrekin. Guztiz berdinak ez izanik ere, hurbil daude Lapurdi itsas hegiko eta Lapurdiko hego-mendebaleko mintzoak. Ezaugarri endemiko batzuk batera berriztatu dituzte eta eskualdeko kolore berezia ematen die:

4.1.2.1. Lapurdiko itsas-hegian nagusi da *tzi* pluralgilea *egon* aditzean, baina ibiltzen da hego-mendebalean ere.¹²

4.1.2.2. xvii. gizaldian Etxeberri Ziburukoak *gare, zare* aldaerak dakartza, itxuraz *gare-la, gare-n, zare-la, zare-n > gare, zare* berranalisiaren bidez.¹³

4.1.2.3. Tripertsonaletan **eradun*-en jokoak galdu da. Datiboko 3. pertsonan **-in*-da oinarria, gaurgero 1651ko Olceren Lapurdiko bertsioan bezala. Datiboa 1. edo 2. perts. direnean *edun*-ek ordezkatu ditu, Bortzirietan edo Oiartzunen bezala.

4.1.2.4. Adizki datibodunetako *z-ka* berranalizatu eta adizki trinko batera sartu da Lapurdin: Gipuzkoan ere ez dira ibiltzen *dakizka* ‘dakizki’ erakoak.

4.1.2.5. Maiztasuna aipatzeko *katu* aditz-atzizkia ibiltzen da Goizuetan, Bortzirietan, Sunbillan, Malerrekan eta Bertizaranan; Hondarribian *ketu* da aldaera (Zelaieta 2008: 110). Biriatur halako etsenplu bat dakar *EAEL*-k (218).¹⁴

4.1.2.6. Ondoko nafarren eskualdeetan bezala —Baztan da salbuespena—, balio puntukaria eransten duen *ki* aditz-atzizkia ageri da eskualdeko etnotestuetan.

¹¹ Jean-Louis Sagastume saratarak Koldo Artolari ziotson hurbilago direla mintzoan Sara eta Ainhoa Sara eta Senpere baino (Irizar 1997: 50).

¹² Hedadura handiagoa du *joan* aditzean: *doatzi* ‘doaz’ Zugarramurdi, Saran, Senperen, Donibane Lohizunen eta Azkainen dugu, ahantzi gabe *doazi* aldaera ere badela: Hendaian, Arrangoitzen eta Azkainen. Nafarroan ere bada *doazi* eta Baxenabarren nagusiki *doatzi* (*EHHA* 1406).

¹³ Ondotik *gae, zae / gai, zai / ge, ze* erako aldaketa eta laburtzeak gertatu dira eskualdean.

¹⁴ *Gure attonak eta, ibiltzen tziien, barkukin ta sariekin, ikusikatu tut... biño, orai ez.*

4.1.2.7. Aldaera foniko berezi franko ibiltzen dira Lapurdiko itsas-hegiko, Sarako, Lapurdiko hego-mendebaleko eta Zugarramurdiko lexikoan, baina lekurik ezaz ezin aurkeztu ditut hona. Zuazoren 2018ko liburuan ikus daitezke horietarik franko.

4.1.3. Bada geografia-hedadura zabalagoa bildu duen berrikuntza bat, Lapurdiko itsas hegi eta hego-mendebalean ibiltzen dena, testuetan lehen aldiz xvii. mendean idazle saratarrek dakartena. Absolutiboko aldaerei begira garatu ziren erakusleen zehar-forma analogiko berri batzuk: *hoken* 'hauen' eta *beken* 'haien' erakoak. Nafarroan Bidasoa-Baztan eskualdera eta Belatez bestaldera ere hedatu dirateke geroztik.

4.1.4. Axularrez geroztik berrikuntzak gertatu dira Lapurdiko mendebalean: batzuk Gipuzkoa edo Nafarroatik jin dira, eta beste batzuk, berriz, Euskal Herriko erdialde zabalagoan sortu eta ondotik hedaturik, Lapurdiko mendebaleko alderdiataraino heldu eta egun itsas hegian, Saran eta ingurumarian ibiltzen dira. Itsas hegiko arrantzale lapurtarrek Gipuzkoa aldeko marinelekin hartu-emana ukan dute eta bi eskualdeotako lehorreko jendeek ere orain duten baino hartu-eman handiagoa ukan dute historian zehar. Ipar Euskal Herri guztian itsas hegiko *eskara* da Hego Euskal Herriko berrikuntzen eragin gehien jasan duena. Lapurdiko mendebaleko honako ezaugarri hauek dira salatzaile:

4.1.4.1. Bonaparteren garaian Lapurdiko itsas hegian bazirauen hein batez hasperenak (Duhalde 2023: 64), baina, Saran bezala, egun galdua da.

4.1.4.2. Lapurdiko itsas hegian *in* & *in* nahiz *il* & *il* segmentuak palatalizatu dira.

4.1.4.3. *-ua* > *-uba* epentesia ahoskatzen zen Lapurdiko itsas-hegian berriki arte eta *-ia* > *-iya* egiten da oraino, Bortzirietan eta Gipuzkoan jarraipena duena.

4.1.4.4. Hitzaren berezko *-a* gal daiteke Baxenabarreko hego-mendebalean, Lapurdiko hego-mendebalean, Nafarroako ipar-ekialdean eta Gipuzkoan. Hala da Saran ere.¹⁵

4.1.4.5. Lapurdiko mendebaleko pertsona-izenordain hanpatuak Gipuzkoako erdi-ekialdekoen eta Nafarroako iparrean ibiltzen direnen sailekoak dira.

4.1.4.6. *ene* izenordain arrunta eta *neure* hanpatua bereizteko ohitura, Axularren garaian sendo zegoena, galdu da Saran: *nere*, *nei*, *neekin*, *neetzat*, *neeganat* erakoak ibiltzen dira egun (Zuazo 2018: 32). Lapurdiko itsas hegian ere, Gipuzkoa eta Nafarroako eskualde batzuetan bezala, *ene*-ren ordain *nere* edo haren aldaerak ibiltzen dira.

4.1.4.7. Hurbiltze-adlatiboan *-raka* edo *aldera* darabiltzate Gipuzkoan. Saran *alderat* aldaera ageri da: *bidexka au Bera alderat gaki da* (Zuazo 2018: 29).

4.1.4.8. Axularrek nasaiki zerabilen plural hurbila galdu da Saran: *guk biek in duu / denek nai ginuke luzaz bizitu* (Zuazo 2018: 31).

4.1.4.9. Aditz nagusiaren moduzkoetan *rik* atzizki zaharra galdu gabe, mendebaleko alderditik *ta* sartu da itsas hegira, eta Saran ere gero eta gehiago baliatzen da.

4.1.4.10. Etxeberrri Ziburukoak *ematen*, *erraten*... aditz-izenak dakartza xviiian eta horrela da orain ere itsas hegian (*EAEI*). Axularren *atzemaiten*, *emaiten*... aldaeren *i* zaharra galdurik, *atxematen*, *ematen*... erakoak darabiltzate Saran egun (Zuazo 2018: 36).

¹⁵ Bortzirietan bezala Saran ere ageri dira soberako mugatzaileak: *lana bat iteko* (Zuazo 2018: 27).

4.1.4.11. Ipar Euskal Herriko ekialdean ez den berrikuntza bat partekatzen zuen Axularren mintzoak Euskal Herriko erdigune zabalarekin: *tze* berria zekarren *ibiltzen*, *igortzen*, *iraultzen*, *ekhartzen*, *ethortzen* etsenpluetan. Aldiz, *atxiiten*, *ekhartzen* aldaera zaharrak darabiltzate Beskoitzen *ekartzen* berriarekin batean (Duhau 1993: 29, 35).

4.1.4.12. Bukieran *-n* edo bokala duten aditz batzuek *-tu* & *-du* pleonastikoa hartu dute Euskal Herriko erdigunean.¹⁶

4.1.4.13. Hiketako oraineko adizkietan *z-* da 3. pertsonaren morfema Lapurdiko mendebalean. Duhauk *dioiat* 'zioat', *ditioiat* 'zitioat' erakoak dakartza Aturrialdeko Beskoitzen (1993: 74), eta *d-* da morfema Bardozen ere (*EHHA*), nahiz Beskoitzen *dezakeiat* eta *zezakeiat* ageri diren, bi joera desberdin herri berean (Duhau 1993: 65).

4.1.4.14. Nafarroako zenbait eskualdetan, Gipuzkoan eta Lapurdiko mendebalean 3. perts. pl.-eko datiboaren aditz-morfema aldatu da: *ote* da orain, ez da garai bateko *e*.

4.1.4.15. Gutxi entzuten bada ere, Sarakoa da «aditza + *eta*» kausazko perpausa: *laster itoa nindukek*, *igeika eztiat ikasi ta* (Zuazo 2018: 53).

4.1.4.16. Lapurdiko itsas hegiko etnotestuetan *egin* aditz-indargarria ageri da.

4.1.5. Ondoko lau ezaugarrietan gordetzailer eta Euskal Herriko erdiguneko ohi-turen arabera jokatu dute Lapurdiko mendebaleko hiztunek:

4.1.5.1. Ergatibo pluraleko *-ak* aldaera entzun daiteke Lapurdiko itsas hegian, eta ez dirudi ezaugarri berria (Manterola 2015).

4.1.5.2. Erronkarin, Zaraitzun eta Hegoaldeko alderdi gehienetan gertatu bezala, 60, 70, 80 eta 90 zenbakien forma zaharrei eutsi diete Lapurdiko itsas hegiko euskaldunek.

4.1.5.3. Destinatiboan «genitiboa + *tzat*» era ageri da Lapurdiko itsas hegian, hego-mendebalean, eta Aturrialdeko Mugerren, Beskoitzen eta Urketan (*EHHA*), baina ez da urrun *-rendako* aldaera: Lapurdiko erdialdean, Urdazubin eta Zugarramurdin bi formen arteko lehia dago (Epelde 2003; Montoya 2004).

4.1.5.4. Lapurdiko mendebalean ez da **iron* adizkirik erabiltzen, ezta *ukan* aditza ere.

4.1.6. Ipar Euskal Herriko itsas-hegian edo barnealderago aldetak jasan dituzten hizkuntza-aldaketa batzuek iraganean ziren bezala aldatu gabe dira Lapurdiko hego-mendebalean. Sarako euskararen adibide hauetan ageri da (Zuazo 2018):

4.1.6.1. Ez dira itsas hegiko edo Lapurdi barnealdeko bokal arteko epentesiak ageri.

4.1.6.2. Palatalizatu gabe diraute *in* eta *il* sekuentziek hainbat eta hainbat hitzetan.

4.1.7. Beste ezaugarri zenbaitetan ere aldaera zaharra gorde du Sarako mintzoak:

4.1.7.1. Bizkaian eta Ipar EH.-an bezala, hitz batzuen *ajn* bukaera ez da *aj* soildu.

4.1.7.2. Osagarri zuzena genitiboan joateak hala dirau.

4.1.7.3. Abl. sing.-ean *-tik* ibiltzen da, baina erakusleetan eta pl.-ean *-rik* aldaera zaharra. Bortzirietan dira *-tikan*, *-rikan*, *-gatikan* edo denborazko *-likan* berriak.

¹⁶ Gipuzkoan halako aditz sorta bat dago eta Nafarroan eta Lapurdin ere bai, baina lapurtarren aditzen konbinazioa ez da besteen bera eta fonikoki ere ez da emaitza bera gertatu eskualde guztietan; cf. lapurtarren *izatu* 'izan', *egotu* 'egon'.

4.1.7.4. Euskal Herriko erdigune zabalean aspaldi hedatu zen soziatiboko *-kin* aldaera berria zerabilen Axularrek eta halaxe dirau egun ere, Sarara ez da *-kila(n)* berria heldu.

4.1.7.5. Hainbat adizkitan *aj* eta *au* diptongoek diraute: *naiz, zaitte, gaitu, zaitut, zait, zaitzu / nau, nauzu, naute...*

4.1.7.6. Ez dago palatalizaziorik pl.-eko 2. pertsonaren *zue* morfeman.

4.1.7.7. Axularren lanean bezala, hautakarietan *ala* partikula baliatzen da.

4.1.7.8. *-larik*-en mesedetan gibelka badao ere, denborazkoetan bada *-nean* oraino.

4.2. Lapurdiko hego-ekialdeko euskara

4.2.1. Lapurdiko hego-ekialdean ez dira beste lekuetan ezezagunak diren berrikuntzak ageri, eskualdeko mintzoan ez da ezaugarri markatuen sorta bat ibiltzen, konbergentzia-maila ona ukan du ondoko eskualdeetako mintzoekin. Lapurdiko erdialdean *u-e* hiatoa *ui* edo *üi* egiten dute uztaritzar, larresoroar edo itsasuarrek, tasun berezia da hau (Epelde 2004b: 665-666). Uztaritze aldeko bereizgarri bakarrenetakoa dira *züik, nüin, duzüi* horiek. Hazpandarrek irri egiten dute uztaritzarren *ui* edo *üi* bokal-sekuentziak entzutean.

4.2.2. Lapurdiko erdialde eta ekialdeko mintzoen ezaugarriak eta haien dinamika geografikoa erakusteko, Epeldek erdiguneko Uztaritze-Larresoro inguruko eta ekialdeko Hazparnealdeko (+ Lekorne, Luhuso eta Makea) mintzoen arteko lotura/etanak dakartza. Erdialdean Zuraide dakusa Epeldek Lapurdiko hego-mendebaleko euskarari so, eta, aldiz, Itsasu dakusa Hazparne alderat eta ekialderat gehienik lerratzen (2004a: 301-302). Bi herri hauek Ezpeleta dute beren artean, geografikoki ez dira urrun Zuraide eta Itsasu.

4.2.3. Dinamika gordetzailleak daude eskualdean: hiztun-taldeen gizarte-harremanekin edo distantzia geografikoarekin erlazioa dute, funtsean soziolinguistikarekin.

4.2.3.1. Dardarkaria ahoskatzean, Kanbo, Lekorne eta Ezpeletako adinekoek ez darabilte frantsesaren ebakera ubulare berria (Epelde 2004a: 281).

4.2.3.2. Kontsonante elkarketan Beskoitzen *nunko, eunko* 'egungo', *hemenko, hanko, hementik, nuntik* eta *nehuntik* formak ditugu (Duhau 1993, 2003). Epeldek hitz horietan ez du *nt* edo *nk* clusterra entzun Larresoron eta Hazparnen (2004a: 286).

4.2.3.3. Lapurdiko itsas hegian edo hego-mendebalean ez bezala, bukaeran sudurkaria edo *-o* duten aditz-izenetan *-iten* da emaitza Larresoron eta Hazparnen (291).

4.2.3.4. Ezezko eta galderazko perpaus osagarrietan Larresorotik Hazparnealdera *-(e)la* menderagailua ibiltzen da, ez *-(e)nik* (296).

4.2.3.5. Perpaus hautakarietan *edo* eta *ala* partikulak bereizten dira.

4.2.4. Eskualdeko euskararen dinamika erakusteko Epeldek duela hogeit bat urte bildu zituen datu batzuk dakartzat erakusgarri:

4.2.4.1. Mendebalerago legez, pertsona-izenordain hanpatuetan *nioni* (abs.), *nio-nik* (erg.) saila ibiltzen da Larresoron. Hazparnen *nihaur, nihauk* & *nihaurek*, baina dat. eta genitiboan egun ekialdean den sail zaharra darabilte bi eskualdeetan (Epelde 2004a: 288).

4.2.4.2. Larresoro aldeko soziatiboan *-aikilan* aldaera *-aikin* baino gutiago ibiltzen da. Aldiz, Hazparnealdean *-aakin* & *-aakilan*, biak ibiltzen dira.

4.2.4.3. Bi eskualdeetan ditugu destinatiboan «genit. + *-tzat*» eta «genit. + *-tako*» erak.

4.2.4.4. Adlatiboan *-a-z* bukatzen diren hitzetan *-alat* ager daiteke.

4.2.4.5. Larresoron *seme bat ukan dute* erakoak entzun daitezke, baina ez «aditz nagusia + *ukan*». Aldiz, Aturrialdean bezala, Luhuson bai (Epelde 2004a: 291).

4.2.4.6. Etorkizuna adierazteko *-in* egiten da aditz nagusia Larresoron, baina Uztaritze, Hazparne eta Beskoitzen *-aan: emaan* ‘emanen’ dakar Duhauk Beskoitzen (1993: 29).

4.2.4.7. Hazparnen *joko nu* & *joónu* ‘joren nau’, bi erak darabiltzate *jo* aditzean (Epelde 2004a: 292). Beskoitzen ere ibiltzen da *joon diat* ‘joren diat’ (Duhau 1993: 30).

4.2.4.8. Lapurdiko hego-mendebalean edo Bidasoaldean bezala, Zuraiden edo Ezpeletan triperisonalen ordain *edun* oinarriko adizkiak entzun daitezke. Larresoro-Hazparneetan ez (Epelde 2004a: 293). Hazparnealdeko triperisonaletako datiboko pert. guztietan **eradun* ibiltzen da beti.

4.2.4.9. Uztaritzen, Larresoron, Itsasun edo Hazparnen, aditz *irrealis*-etan gehiago ibiltzen dira **ezan* oinarriko adizkiak **iron*-ekoak baino. Hazparnen jende zaharrek **iron* saileko aldaerak darabiltzate (294). Aturrialdean ere ibiltzen da **iron*.

4.2.4.10. Senperen, Larresoron, Hazparnen edo Beskoitzen *ari*-k laguntzaile iragankorra har dezake. Uztaritzen Epeldek *hasi*-rekin ere joko iragankorra dakar (294).

4.2.4.11. Xuketa ez-alokutiboan mintzo dira Larresoron, Lekornen, Lekuinen, Makean eta Hazparnen. Luhuson eta Makea herriko hegoaldean ez dago xuketarik (Irizar 1999: 423). Hazparnetik Aiherrarat goazela, xuketa alokutiboaren eremura iragaten gara.

4.2.4.12. Larresoro aldean ez da *bai/ez* galderetako *a* morfema ibiltzen, baina Kanbon eta Itsasun *a* ezarriarik nahiz *a* gabe galdegin daiteke. Hazparnealdean *a* ibiltzen da.

4.2.4.13. Bi eskualdeetan ibiltzen da erlatibozko perpusetan aditz-partizipio soila, baina Hazparnen gehiago.

4.2.5. Ipar Euskal Herriko barnealdeko syntaxiko joera aski hedatuak ageri dira Larresoroko eskualdeko eta Hazparnealdeko mintzoetan (Epelde 2004a: 296-297).¹⁷

4.3. Hazparneko eskualdeko berrikuntzak

4.3.1. Aitzineko azpiatalean Lapurdiko erdigunetik ekialdeko Hazparnealdera mintzoan zer alde dagoen ikusirik, Hazparnealdeko mintzoari helduko diot orain. Zuberoa ez den Ipar Euskal Herrian, ongi kokaturik erdigunean dagoen hiria da Hazparne. Zaroko Arbelbide apezak aspaldi idatzi zuen (2004 [1890]: 269): «Eta nola Eskualdunentzat asentatu nahi baitzuen misionest etche hori, ez zezaken nihon

¹⁷ 1) Bi eskualdeetan darabilte zehargalderan *-enez* & *-enetz*. 2) Bi eskualdeetan darabilte *-(e)lakoan* kausazko perpausetan. 3) Bi eskualdeetan darabilte *-en ber* egitura baldintza-kutsua duten perpausetan.

ere hain ongi ezar nola Hazparnen, Laphurdiko eta Nafarro-Behereko hegian, eskualde guzietara berdin errechki heltzeko pharadan».

Eskualde-buru nabarmena izanik, aspaldiko merkatu garrantzizkoa, oskigintzako lantegiak, gizarte-zerbitzuak eta erietxeak ukan ditu Hazparnek eta demografikoki jendetsua izan da: 1793an 4641 hiritar zuen. Hazparnen eraiki ditu ikastegiak Elizak, eskolak euskaraz emanik, gainera, hiriko XVIII. mende erdialdeko *Kadet eta Betti-rriño* [κ&β] euskal testu luzea lekuko; cf. Oihartzabal (1999). XVIII. mendean bada erlijio-irakasgunerik Hazparnen (Padilla 2011: 13). Hiri honetako misionesten euskarak oniritzi gaitza ukan du gerora, Amikuzeko eskualdeko jendeen gogoan, konparazione.

Euskararen aldetik Hazparne hedagune garrantzizkoa izan da. Hirian sorturikotzat jotzen dudan berrikuntza bat baino gehiago heldu da ingurumariko herri ttipietara: ezker Uztaritze alderdira, goiti Aturrialdera Bardozeraino, eskuin Arberoa eskualdera eta baita Amikuzeko ipar-mendebalera ere. Eskualdeko hizkuntza-aldaeren hautsi-mautsiei eragiten die Hazparneko euskarak. Ingurumarian dauden herri ttipietako bizilagunek Hazparneko berrikuntzak eraman dituzte beren herrietara, eta azkenik, beren etxetara sartu dituzte, Hazparnen edo hazpandarrei entzun hizkuntza-aldaerak aitetamen edo beste senitartekoen aitzinean ere baliatzeraino. Misionestek ere Hazparnetik ondoko herrietara beren predikuetan hizkuntza-eragina eraman zuketan. Amikuzeko mendebaleko euskaldunek etxeraino ekarri berrikuntzetan Hazparnetik hedatuak dira bi hauek: 1) edute genitiboko *-aan*; 2) *johan da* adizki perifrastikoa 'joaten da' edo 'doa' adieran.

4.3.2. Hazparnetik ezker-eskuin eta goi-behe hedatu berrikuntza historiko zenbait aurkeztuko dut, baina baita Hazparne inguruan gelditu diren beste batzuk ere:

4.3.2.1. Bonapartek sumatu zuen Hazparneko *-u-a* hiatoaren *-üa* palatalizazioa eta, bestalde, Uztaritzen eta Hazparnen aditz nagusian *-tuko* (+ etork.) egiten badute ere, palatalizaturik *-tiko* entzun dakieke batzuetan hazpandarrei (Epelde 2004a: 276-277).

4.3.2.2. Zenbait izenordainetan *aj* diptongoa *ei*-ra edo *i*-ra lerratu da Hazparne hirian, Makean eta Lekornen. Larresoron ez da *aj* diptongoa guztiz galdu, nahiz *aj* > *ei* lerradura dagoen (Epelde 2004a: 277-278, 289; Epelde 2004b: 666).

4.3.2.3. Genitiboko *-ain* orokorra ez, *-aan* ageri zaigu Uztaritzeko alderdian, Hazparnealdean, Aturrialdean, Arberoako herri batzuetan eta Amikuzeko mendebalean.

4.3.2.4. XIX. mendetik Lapurdin den *-eri* berria eta ekialdeko *-er* bateratzen ditu dat. pl.-eko *-erri*-k. Hazparnen XVIIIan ageri da *-erri*: *EHHAk* Aturrialdeko Muge-rreren dakar.

4.3.2.5. Ohikotasuna adieraz dezake *johan* + *izan* egiturak Lapurdiko ekialdean eta Baxenabarreko mendebalean. Balio puntukaria ere ukan dezake; Rudolph Trebitschek 1913an Beskoitzen dakar: *sorthu nintuzun amaan altzotik johan zelaikan Espaiñaat, beste ahizpa'aten ikhusteat* (Etxebarria 1994: 61). *EHHAk* ere balio hori dakar egun Hazparne inguruan (1404).

4.3.2.6. XVIII. mende erdiko Hazparneko κ&β idazlanean ditugu *zauntan* & *zaundan* 'zidan, zitzaidan', *nankon* 'nion' erako adizki-aldaera *n*-dunak. Egundak Uztaritze alderdian, Hazparnealdean, Aturrialdean, Arberoan eta Amikuzeko mendebalean entzun daitezke. Eskualdean Hazparne da herri bakarra *nk* clusterraz landa *ng* ahos-tundua ere baduena.

4.3.2.7. Hazparnen, Lekuinen eta Lekornen *izan* aditzaren oraineko Nor-Nori aditz-sailean *d-* ere ibiltzen da *z-* morfemaz landa: *daut* ‘zait’ dakar Irizarrek Hazparnen (1999). Aturrialdean ere bada *d-* hori eta Baxenabarreko mendebalean Aiherran eta Izturitzen.

4.3.2.8. XVIII. mendearen erdiaz geroztik *ɨ* da *izan* eta **eradun* oinarrien pluralgilea Hazparnen: *jin zait* ‘zaizkit’, *igortzen daitzut* ‘dizkizut’. Bonapartek Beskoitzen ere bildu zuen berrikuntza hau, baina Duhauk ez dakar egungo emaitzetan.

4.3.2.9. Ez dakit XIX. mendean Hazparnealdeko eta Baigorrialdeko testuetan ageri den berrikuntza bat, hiatoko *ie* > *ii* bokal asimilazioa, *nuen* > *nien* > *niin*, *duen* > *diin* aldaerak eragin dituena, Hazparnen sortu berrikuntza ote den.

4.3.3. XVIII. mendeko k&b idazlaneko datuen arabera, baliteke Hazparneko arestiko tasun berri horien artetik, *-üa* hiatoa, pluraleko *-erri* datiboa, iraganeko adizkietako *n* analogikoa edo adizki datibodunetako *ɨ* pluralgilea baino, berriagoak izatea *-aan* genitiboa, *johan*-en ohikotasun-erabilera eta hiatotako *ie* > *ii* asimilazioa. Bi ezaugarri berri ageri dira XIX. mendeko Bonaparteren saileko Hazparneko katiximan: hala *-aan* genitiboa nola *ii* hiato berri asimilatua. Aldiz, XIX. mendeko katixima horiek ez dakar ohikotasuneko *johan da* ‘joan ohi da’ aldaera berriaren etsenplurik.

4.4. Aturrialdeko berrikuntzak

4.4.1. Eskualdearen barreneko hizkuntza-zatiketa

4.4.1.1. Eskualdeak ez du batasunik mintzoan, Bardoze beste herrietarik urrun-tzen da. *EHHA*ko emaitzen arabera Beskoitzek bereziki Urketako mintzoarekin du batasuna. Duhauk dioenez «Beskoitzeko euskara, Mugerrekoa eta Urketakoa, «familia» berekoak ditutzu, elgarri hurbilenak» (1993: 12). Zatiketaren etsenplu batzuk dakartzat:

4.4.1.2. Aturrialdea bitartekaritza geografikoan kokaturik egoteak ere eragin du herri batean eta berean aldaera desberdinak baliatzea. Konparazione, Bardozen *uri* & *euri*, bi aldaerak ibiltzen dira (*EHHA*). Adizkietan *dezakeiat* eta *zezakeiat* ibiltzen dira Beskoitzen: hizkuntzaren bi joera geografiko desberdin herri berean (Duhau 1993: 65).

4.4.1.3. Gaurgero aipatu dugu Aturrialdeko erakusle pluraletan abs. eta erg. bereizten direla, baina ez da halakorik egiten Bardozen; ezta Hazparnen ere (*EHHA*).

4.4.1.4. Zuberoako eran *zun-* eta *nu-* eredia dakar Bardozeke Celhabereren katiximak galdetzailletan (XIX): *zunbeit* ‘zenbait’, *zuiñ* ‘zein’ / *nur* ‘nor’, *nuk* ‘nork’, *nuiç* ‘noiz’, *nun* ‘non’..., baina egungo emaitzetan *EHHA* atlasak ez dakar berrikuntza hori Bardozen.

4.4.1.5. Destinatioan *tzat* eta *tako* aldaerek eragiten dute aldakortasuna: Bardozen «genit. + *tako*» dago eta Mugerren, Beskoitzen eta Urketan «genit. + *tzat*» (*EHHA*, 1086. mapa).

4.4.1.6. Muga adlatiboan *-raino* / *-radio* / *-raidio*, hiru aldaerak ageri dira Aturrialdean.

4.4.1.7. **eradun*-en adizki triperzonal batzuen osagarri singularrean *au* > *ai* palatalizazioa dago eskualdean (*EHHA*), baina ez da gertakari orokorra.

4.4.1.8. Aturrialdeko lexikoko aldaera foniko batzuek Lapurdi, Baxenabarre eta Nafarroara so jartzen gaituzte, baina beste batzuek ekialde hertsira.

4.4.2. Aturrialdeko ezaugarri endemikoak

Guti goiti beheiti eta ñabardurak ñabardura, ondoko ezaugarri berri hauek Aturrialde eskualdeko endemikotzat jotzen ahal ditugu:

4.4.2.1. Ipar Euskal Herrian Beskoitze alderdian du sinkopak agerraldi nabarmena.¹⁸

4.4.2.2. Lapurdin *tzi* pluralgilea iragangaitzetan ageri baldin bada, adizkiak ez du datiborik izaten, baina salbuespena dago Beskoitzen: Duhauk *zaitzin* ‘zaizkin’ bildu zuen (1981-82). Bonapartek triperatsonaletan ‘nik hiri’ *daitzinat* / *daitziat* eta ‘guk hiri’ *daitzinau* / *daitziau* (Irizar 2002b: 146, 149).¹⁹ Agintezkoetan ere *tzi* darabilte Beskoitzen: *zatzin* ‘itzan’, *zatzik* ‘itzak’ (Duhau 1993: 85) / *noitzin* ‘har itzan’, *toitzik* ‘har itzak’ (115).

4.4.2.3. Dinamika fonikoa har lezake morfologiak euskaraz sing.-etik pl.-era: adibidez, *diot* / *ditiot* > *tiot* binomioa *diot* / *tiot* bilakatu da Nafarroan. Berebat, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan *dut* / *ditut* > *tut* binomioa *dut* / *tut* bilakatu da eta halaxe da Beskoitzen ere: *dut* / *tut* ‘ditut’, *duzu* / *tuzu* ‘dituzu’. Analogiaz adizki triperatsonaletara jo du dinamika horrek Aturrialdean: *daitzut* ‘dizut’ / *taitzut* ‘dizkizut’, *daitzu* ‘dizu’ / *taitzu* ‘dizkizu’, *daitziitet* ‘dizuet’ / *taitziitet* ‘dizkizuet’, *daitziite* ‘dizue’ / *taitziite* ‘dizkizue’ erakoak garatu dira Beskoitzen (Irizar 2002b: 148), Lehuntzen eta Urketan (Irizar 2002b: 162-163, 282). Aturrialdeko dinamika hau datiboa 2. perts. sing. eta pl. denean baizik ez da baliatzen. Ez dago «dakot» ‘diot’ / «takot» ‘dizkiot’, *dako* / *dazko* (Lehuntze) baizik.²⁰

4.4.2.4. Bardozen 1. perts. pl.-aren datibo-morfemaren aldaera berria dago: *-ku-z* landa bada *-ki* ‘guri’ ere. Alokutiboko *ki/i* marka izan liteke analogiaren edo berranaliaren oinarria, edo *zki* pluralgileko *ki* datibo marka zaharra, bestela? Bonapartek *diaukiun* ‘zigun’, *diaukiuk* ‘ziguk’, *diaukiuzu* & *diaukiuzi* —‘digu’ zuketan— dakartza, egun *daukin* ‘zigun’, *daukik* ‘ziguk’, *daukizu* ‘digu’ zuketan direnak (Irizar 2002a: 276). Bardozen *zauki* eta *zauku* dira egun ‘zaigu’, eta *zaukin* eta *zaukun* ‘zizaigun’. Bardozeke katiximako formek agintezko *euzu* edo *begirauzu* zaharrak oroitazten dizkidate: *erakuts aukizu* ‘iezaguzu’ (Pagola *et alii* 1999: 281) & *emaaukizu* ‘eman iezaguzu’ *ogia* (291).

¹⁸ *aorla* ‘agorri’, *arla* ‘arroi’, *belhaaunko* ‘belauniko’ —XIX. mendeko katiximan *belhaunco* (Pagola *et alii* 1999: 340)—, *eguartan* ‘eguerdian’, *iphurtik* ‘ipurditik’, *laxtu* ‘laxatu’, *pastu* ‘pasatu’, *pustu* ‘pusatu’, *urtharla* ‘urtarrila’, *zurbia* ‘zurubia’ (Duhau 1993, 2003). Adizkietan ere bai: Beskoitzen *zinten* ‘zineten’ & *ziinten*, Lehuntzen *zinten* (Irizar 2002b). Hona Bardozeke sinkopak: *arle* ‘ari(z)ale’ & *artzen* ‘aritzen’, *belhaunco*, *erten* & *erraiten*, *gaintik* ‘gainetik’, *lau ontan* ‘lau orenetan’, *phaastu* & *pasatu*, *saartan* ‘sagarretan’ (EHHA). Irizarrek *ztien* ‘zituen’ dakar Bardozeke Sarrada auzoan (2002a: 334). Bardozeke ondoko sekuentzia hauek aferesirik gabeak dira: *emazte*, *ezautu*, *ikhasi*, *ikbusi*, *iphurdi*, *iphurtziloa*; cf. *hau xilik* ‘hago isilik’ (EHHA).

¹⁹ Aldiz, *tzi* ez da pluralgilea *taitzii* ‘zaizkizue’ & *taitziite* adizkietan (Irizar 2002b: 146), horietan datiboa da *tzii*: *zue* > *zie* > *zii*, eta afrikaturik, *tzii*.

²⁰ Hazparnealdeko triperatsonaletan *i* pluralgile izan daiteke (cf. § 4.3.2.8), eta Aturrialdean *d-/t-* jokoak osagarriaren sing./pl. unibokotasuna dakar 2. perts. datiboan. Egund Aturrialdean bezala zen XIX. Bardozen ere, baina *d-/t-* joko morfologikoa galdurik, sing. eta pl. izan daiteke orain *d-* Bardozen (Irizar 2002a: 277).

4.4.3. Lapurdiko euskararen eragina Aturrialdean

Lapurdin da Aturrialdea, Bardoze herria barne, eskualdeko euskaldunek lapurta-rrerkin partekatzen dituzte berrikuntza batzuk. Hona tasun berriak Lapurditik eskual-dera jinak:

4.4.3.1. Pertsona-izenordain hanpatuetan *niboone* / *nihoor*, *zuhoone* / *zuhoor*, *xuhoone* / *xuhoor* eta *zihoone* / *zihoor* aldaera pareak ibiltzen dituzte beskoitzarrek. Marraren ezkerreko izenordainen saila Lapurdiko erdiguneari so dago.²¹ Aturrialdeko beste herrietan *zuhaunek* ‘zerorrek’ (erg.) dakar *EHHAk* Urketan eta *zihonek* ‘zeuek’ Mugerren. Beskoitze ez diren Aturrialdeko beste herrietako aldaerak ekialdera so daude eta zaharrago den eskuineko sailari dagozkio, baina sail zaharrea ere berrikuntza gertatu da. *EHHAk* 1. pertsonan Bardoze eta Urketan *nihaur* dakar, Mugerren *nihor* eta *nihaur*, eta Hazparnen *nibeu*. 2. pertsonan Bardozen *zuhaur*, Hazparnen *zuaur*, Mugerren *zuhaun* eta Urketan *zuhaunek* (erg.). Ez bada *nihaur* > *nihaur* asimilazio fonikoa gertatu eta analogiaz gero *zuhaur*-era joan, analogia *nihon-* sailetik *nihaur* sailera etorri da Aturrialdean *nihaur* eta *zuhaun* eraginik. Zuberotarrek ere, cf. *EHHA*, *niháun* ‘nihaur’, *ziháun* ‘zuhaur’ aldaerak darabiltzate absolutiboan, baina horien arrazoia ez dakiokio egotz, Aturrialdean bezala, *nibo(o)n-*, *zubo(o)n-* izenordainen ispilu-eraginari, Zuberoko berrikuntzan asimilazio fonikoa gertatu ahal izan da: *nihaur* > *nihaur*.

4.4.3.2. Izan-en aldaeretan *gie* ‘gara’, *zie* ‘zara’, *die* ‘dira’ aipa daitezke Urketan, Beskoitzen eta Bardozen. Bardozen ekialderagoko *gia* ‘gara’, *zia* ‘zara’, *xia* ‘xara’ eta *dia* ‘dira’ ditugu ere (Irizar 2002a: 274). Senperen *gaa* dakarte Duhauk (1993: 10) eta *EHHAk*.

4.4.3.3. Lapurdira so dago iraganeko singularrean *edun*-en *-z-* pluralgile analogikoa: Beskoitzen *nintuzten* ‘ninduten’ ageri da, Arrangoitzen, Ahetzen eta Lekuinen legez; cf. *nituzten* (Mugerre, Itsasu) & *ninduzten* (Uztaritze, Hazparne, Bardoze).²²

4.4.3.4. Baxenabarrera jotzen dute Bardoze *nintzan* ‘nintzen’, *hintzan* formek, baina Lapurdiko eran, *nintzen*, (*h*)*intzen* berriak darabiltzate Mugerren, Beskoitzen eta Urketan. Bardozen Bonapartek xixan *nintzan* dakar, baina Artolak xxan *nintzen*; *EHHAk* biak. Lapurdiko ekialdean bi aldaerak dakartza Irizarrek: *nintzan* & *nintzen* (1997: 401).

4.4.3.5. Lapurdin bezalakoa da Aturrialdeko *zakote* ‘zaie’ eta Lapurdira so dago Bardoze *dakotet* ‘diet’ aldaera, **eradun* + *ote* ‘haiei’ dat. egituraduna.²³

²¹ 1. perts. sing.-ean *-ne* dakar *EHHAk* Azkainen eta Beskoitzen eta *-ni* Uztaritzen eta Itsasun. 2. perts. sing.-ean *-ni* dago Azkainen, Uztaritzen eta Itsasun. 2. perts. pl.-ean *zionek* dago Uztaritzen eta Itsasun.

²² Aturrialdean **edin*-en iraganean eta hipotetikoan ere ageri da: Beskoitzen *nintazken*, *nintazketxun*...

²³ Baxenabartarren aldaera *e* da: *ze(i)e* ‘zaie’ & *de(i)et* ‘diet’. xix. mendean *dayet* ‘diet’, *daye* ‘die’, *dayeu* ‘diegu’, *dayete* ‘diete’ ditugu Beskoitzen, eta Urketako katiximan *dayezut*, ‘diet’ zuketan (Pagola et alii 1999: 366). Bonapartek bezala Iratzederrek *zaye* ‘zaie’ dakar Beskoitzen (1978-1979), baina Duhauk 1981-82an *zakote* (Irizar 2002b: 146). Mugerrena eta Lehuntzera bezala, xx. menderako, Lapurditikako aldaera berriak sartu dira Beskoitzera. Egun bezala, xix.ean ere *dakote* ‘die’ & ‘diete’ zen Hiriburun. Bardozen *nakoten* ‘nien’ dakarte Bonapartek eta Artolak, baina Artolak *neian* ‘nien’ dakar ere (Irizar 2002a: 279).

4.4.3.6. Lapurdiko kutsua dakarren *dautet* ‘didate’ dakarte Bonapartek eta Artolak Bardozen XIX.-XX. mendeetan, baina Baxenabarren, ondoko herri Oragarreko Bartha kartierrean *dautate* ‘didate’ & *datate* dakartza Artolak (Irizar 2002a: 313).

4.4.3.7. *edun* adizkietan Nor sing.-etik pl.-era iragatean gehitutako *it* pluralgileak *nind-* vs *gin(i)t-* aldea eragin zukeen 1. pertsonan: *d* sing. vs *t* pl.²⁴ Halarik ere, Aturrialdeko adizkietan eta ondoko eskualde batzuetan *t* herskari ahoskabea 1. perts. singularreko morfema gisa identifikatu da. Eman dezagun, bokal artean ere *ta* dago (eta ez *da*) Nork **ezan*-en edo Nori *izan*-en: *dezatan* ‘dezadan’ / *zaxu* ‘zaidaxu’ (Bardoze, *EHHA*). Beskoitzen Trebitschek 1913an *behartu zatazun* ‘zitzaidan’ dakar (Etxebarria 1994: 61). Berebat, hedadura du Lapurdin iraganeko *edun*-en *ni(n)t-* Nor hasierak 1. perts. sing.-ean (vs *nind-*); cf. Lehuntze eta Beskoitzeko *nintuzten* ‘ninduten’ edo *nintuian* ‘ninduan’, tokako ‘nintzen’. *EHHAk nintuzten* ‘ninduten’ dakar Ahetzen eta Arrangoitzen, eta *nituzten* ‘ninduten’ Itsasun eta Aturrialdeko Mugerren. Alta, Bardozen *ninduzten* & *ninduten* aldaerak dakartza, eta Hazparden *ninduzten* (1348. mapa). Iduri luke *nind-* → *nint-* horretan pluraletik singularrera analogia gertatu dela. Ohiko *-t* «nik, eni» morfemaren oihartzunak ere lagundu lezake. Pablo Albizu morfologian adituak **edin*-eko *na-i-te-ke* edo *nin-te-ke* saileko *te*-ren *t* ahoskabearen oihartzuna ere aipatzen dit.

4.4.3.7.1. Hondar garaiko bi lanetan —Camino 2022 (272-273) eta Camino 2023 (103-105)—, Lapurdi alderdiko aditz trinko iragangaitz batzuen aldaerez jardun dut, bai baitira horietan analogikoak diruditen sekuentziak: oraineko *-it-* eta iraganeko *-int-* (*gitoon* ‘gauden’ noka eta *nintoon* ‘nengoen’). Adierazi nuen Lapurdiko adizki trinko iragangaitz horiek *edun* adizkien egiturak kutsaturik egon litezkeela eta ez dela gauza ezina *it* hori *edun*, **ezan* eta **iron* adizkiek duten pluralgile bera izatea. Nolaz heldu ote da, ordea, *it* pluralgilea adizki iragankorretarik trinko iragangaitz-tara? Analogiaren norabidea pluraleko adizkietarik singularrekoetara (*gint-* → *nint-*) nahiz iraganekoetarik orainekoetara (*nint-* → *nit-*) gertatu ahal izan delako nioen. Berri Martin Duhaldere *Meditacione*etako *nitagon* ‘nengoen’ adizkia ezagutu dut eta iritzi sendoagoa dut orain berrikuntzaren norabideaz. Honela idatzi zuen apez uztariztarrak: *non egiazki baintagon cernahi egiterat* (1809: 129). Liburu berekoa da *urrun nintagokela* ‘nengokeela’ etsenplua ere (1809: 576); Duhalde *nitagon* ‘nengoen’ & *nintagon* aldaerak zerabiltzan. 2022 eta 2023ko lanak idaztean Beskoitzeko *nintoon* ‘nengoen’ ezagutzen nuen, eta berri *nitagon* ezagutzean hobeki ulertu dut zer gertatu zen.

4.4.3.7.2. Euskaran ezaguna da iraganeko aditz trinkoen hasierako *nen-* / *nin(d)-*, *hen-* / *hin(d)-*, *gen-* / *gin(d)-*, *zen* / *zin(d)-* bitasuna: *nengoen*, *hengoan*, *geunden*, *genbiltzan* edo *genekien* adizki zaharren kide analogikoak dira *nindagon*, *hindagon*, *gindauden*, *gindabilztan* edo *gindakien* Euskal Herriko eguzkialdean. Aldaketaren ispilu edo indar laguntzaile izan litezke *izan*-eko *nin-(tzen)*, *hin-(tzen)*, *gin-(en)*, *zin-(en)* hasierak, edo beharbada *edun*-en *nind-*, *hind-*, *gind-*, *zind-* egitura. Bokala asimilatuta artean *gend-*, *zend-* ziren iraganeko *edun*-eko *gind-*, *zind-* horiek.

4.4.3.7.3. Ekialde zabalean hedadura zabalskoa duen *nindagon* ‘nengoen’ adizkitik Duhalde idazle uztariztarraren eskualdeko *nitagon* aldaerara dagoen bidea justifi-

²⁴ Eskertzen ditut azpialt honi Pablo Albizuk, Olatz Leturiagak eta Beñat Oihartzabalek egin oharrrak.

katzeko adizkien analogia balia liteke. Ene iduriko, Lapurdiko eskualdean berrikuntza analogiko batzuk gertatu ziren *edun*-en, ondotik gure kasuko *nindagon* → *nitagon* aldaketaren ispilu jokaera eragin zuketena.²⁵ Halaz, *edun*-en *nituen* adizki arruntak badu kide berriago bat, *nintuen* ‘nituen’ analogikoa, oinarria pluraleko subjektuetan ukan lezakeena: *genituen* > *ginituen* > *gintuen* edo *zenituen* > *zinituen* > *zintuen* aldaerek aldaketa guztiak fonikoak dituzte, bai bokal asimilazioa, bai sinkopa. Ondorioz, badugu *edun*-en (guk) *gintuen* ‘genituen’ bat, pluraleko 1. pertsonan, singularreko (nik) *nituen* kutsaraz lezakeena, eta adizki hori *nintuen* ‘nituen’ bilakaraz lezakeena. Eta gertatu da bigarren kutsadura bat ere: *ninduen* «hark ni» arrunta *nintuen* da Duhalderean mintzoan. Honela, «nik haiek» *nituen nintuen* da eta «hark ni» *ninduen* ere *nintuen* da, zeinetarik ateratzen baita analogiaren bidez *ind* / *int* / *it* sekuentziak elkarri eragiten ari direla, morfologian eta alderdi fonikoan elkarrekin gurutzatzen ari dira *edun* adizkietan *ind*, *int* eta *it*. Dinamika foniko horrek ondotik *edun* aditz iragankorretik aditz iragangaitzetara bidea zabaldu du, adizki trinko iragangaitzetara eta **edin* adizkietara. *Edun*-eko berrikuntza hau, *nitagon* ‘nengoen’ aldaeraren eragile izatekotan, *edun*-ena lehenagokoa beharko luke izan *nindagon* → *nitagon* aldaketa baino. Duhalderean garaian gaugerero gertaturik zegoen *edun*-en *nituen* → *nintuen*: *nituela* eta *nintuenetz* ‘ote nituen’ dakartza uztaiztarrak, eta bestalde, *nintuen* ‘ninduen’ aldaeraren adibide bat ere badakar. ЕКC-k ez dakar *nintuen* ‘nituen’-en adibiderik Duhalde baino lehen, beraz, Uztaritze alderdian bazen berrikuntza hori XIX. mendearen hasieran eta 1733an sortu zen Duhalde haren erabiltzailea zen.

4.4.3.7.4. Uztaritzetik ez luke urrun egon beharko *nituen* & *nintuen* erako txandaketa: *nitüin* ‘nituen’ dakar Irizarrek Uztaritzen xx. mendearen hondarrean, nahiz pluralean baden *n*: *gintüin* ‘genituen’, *zintüin* ‘zenituen’ (1999: 256). Alta, Uztaritzeko herri auzo den Zuraiden *nintüin* ‘nituen’ dakar Irizarren bildumak, eta baita *gintüin* eta *zintüin* ere. Euskaraz *edun* adizkien *nituen* & *nintuen* ‘nituen’ txandaketak ispilu bat eskaintzen du hiztunak *egon* adizkietan alderantziz *nindagon* ‘nengoen’ → *nitagon* bidea ere egin dezan, eta horrek *nindagon* & *nitagon* txandaketa eragin dezake. Honela, *nitagon* eta *nindagon*-en artean dagoen erlazioan, arestiko *nituin* / *nintuin* paretik desberdina den alderdi bakarra ahostun/ahoskabe arteko aldea da: lehen hartan *t* vs *nt* da txandaketa eta beste honetan, berriz, *t* vs *nd*. Duhalde idazle uztariztarrak *nitagon* zerabilen, lehenago *nindagon* izan zena. Ordea, *egon* aditz trinkoaren iraganeko 1. pertsonan *nd* eta *t* horiez landa bada *nt* sekuentzia ere: horra Aturrialdeko Beskoitzeko *nintoon* ‘nengoen’, aitzinetik *nintogon* < *nintagon* izan zatekeena, iturria *nindagon* duena (Duhau 1993: 6). Toketan bada *nintooian* ‘nengoa’ ere eta pluralean *gintoonan* ‘geundenan’, *gintooian* ‘geundean’ ibiltzen dira Beskoitzeko hiketan (Duhau 1993: 104-105). Duhalde berak **edin*-en hipotetikoko *bahintadi* dakar, lehenago *bahindadi* izan zena (1809: 485-486).

Edun-en bikote berria *nituen/nintuen* zelarik, eta *ninduen* adizkia *nintuen*-ek ordezkatu zuelarik, kutsaduraz edo haien eredura jokaturik, Lapurdiko barnealdean *egon* aditzeko *nindagon* ‘nengoen’, *nituen/nintuen*-en ereduari so eginik, *nitagon/nitagon* bikotea izatera aldatu zen, bi aldaera berrietara aldatu zen *nindagon*. Ez da

²⁵ Pablo Albizuk oroitarazten dit iragangaitz → iragangaitz eragina aiseago gertatzen dela aldaketarako iragankor → iragangaitz norabidea baino.

ahantzi behar eskualdean identifikazio maila handia lortu dela 1. pertsonaren eta *t* markaren artean. Hazparden eta Bastidan ere bada *nintoon* ‘nengoen’ adizki *t*-duna, eta Arrangoitzen proposamen onetsia da (EHHA). Aldiz, Bardozeke EHHAko inkestan lekuko batek Videgain inkestatzaileari diotso ez darabilte «nintoon». Gainerakoan, ohiko *ninda(g)on* aldaera ibiltzen dute lapurtarrek; nafarrek *nind(ale)gon* & *niñ(ale)gon*. Adierazgarri da ikustea ez dagoela *nitagon* edo *nintagon* aldaerarik *ni-tuen* & *nintuen* erako txandaketa egiten ez den eskualdeetan: konparazione, *nindagon* dakar Baztango Elizondoko mintzora Bruno Etxenikék 1857an itzuli San Mateoren ebanjelioak.

4.4.3.7.5. Alta, analogia ez da *egon* aditzera mugatu, Beskoitzen *nint-* dago (eta ez *nind-*) *ibili* aditzaren Nor 1. perts. sing.-aren iraganean ere: *nintaailan* ‘nenbilen’ (Duhau 1993: 6, 107), inoiz *nindabilan* izan zena. Eta **edin*-en Nor iraganean *nintaain* ‘nendin’ & *ninten*; pluralean *gintaain* ‘gintezten’ & *ginten*. Nor-Nori iraganean ere Nor *nint-* ageri da *izan*-en Beskoitzen: *nintazkon* ‘nintzaion’, *nintaitzun* ‘nintzaitzun’ (Duhau 1993: 63).

Alokutiboko orainean aditz trinko iragangaitzek 1. perts. pl.-ean *it* pluralgilea dakarte Beskoitzen, hain segur iraganeko *it* berriaren analogiaz: *gitagon* (*gitoon* ahoskatu-rik ‘gauden’), *gitagok*, *gitagotzu*, *gitagotxu* / *gitailan* ‘gabiltzan’, *gitailak* & *gabiltzak*, *gitailatzu*, *gitailatxu*. Alokutibotik landa, analogia honek berak berrikuntza bera eragin du **edin*-en oraineko sing.-eko eta pl.-eko jokoetan (Duhau 1993: 56-57): *nintaain* ‘nadin’ & *naain* & *niten*; *hitaain* ‘hadin’ & *haain* & *hiten*; *gitaain* ‘gaitezen’ & *giten* (< **ga-di-te-n*); *xitaain* ‘xaitezen’ & *xiten*. Iraganeko aldaeren egitura oraineko adizkietara analogiaz kutsatu dateke:

IRAGANEKO *nind-*, *gind-*, *xind-* → IRAGANEKO *nint-*, *gint-*, *xint-*
→ IRAGANEKO *nit-*, *git-*, *xit-* → ORAINEKO *nit-*, *git-*, *xit-*

4.4.3.8. Lapurdin gaindi jin dira Aturrialdeko eskualdera berrikuntza batzuk Euskal Herriko erdialde hertsitik.²⁶

4.4.4. Aturrialdea: ekialdeko joeren jarraipen-gunea

4.4.4.1. Hizkuntzari dagokionez Aturrialdea ekialdeko Euskal Herriko berrikuntza batzuen halako iraganbide naturala izan da, Amikuzeko ^b*eskuaran* gaindi bereziki. Bardozeke datu zenbait eskaintzen digu EHHAk eta Amikuzeko hitz eta aldaera zenbaitetek Bardozen edo Aturrialdean jarraipena dutela ageri da: hori aspalditik heldu den erlazio bati dagokio, nahiz egun erlazio hori ahulago dagoen. Hiriburun, Lehuntzen, Mugerren, Urketan, Beskoitzen eta bereziki Bardozen atzeman daitezke eskuin Amikuzen edo Zuberoan berragertuko zaizkigun ezaugarri batzuk, Euskal Herriko hizkuntza-ekialdeko jite geolinguistikoa dutenak. Aspalditik Bordeleko Landetara jo izan dute neguan zuberotarrek beren abereekin eta uler daitezke haien aziendak Atu-

²⁶ *johan zelaikan* (Beskoitze, 1913) / *idortea delaikan* ‘lehortea denean’ (Mugerre, EAEL) / *behiaan izterrian johan zelaikan* (Urketa, EAEL) / *hor delarikan* (Beskoitze, Duhau 2003: 304). Alta, inesiborik gabe dakar XIX. mendeko Urketako katiximak: *mintzatzen guielaiak* (Pagola et alii 1999: 342).

rri ur handiko ura beharko zuela bidean: iparreko Lapurdiko, Amikuzeko eta Zuberoko euskaldunen hartu-emanaren eragin ahal ukan du luzaz abeltzaintzak.²⁷

Euskal Herriko hizkuntza-ekialde geografikoa hertsia ala zabala izan daiteke, baina Aturrialdean bi hedaduretako berrikuntzak daude, nahiz ondokotasun geografikoaren hatsarrearen arabera, ekialde zabalekoak, Baxenabarretik jina, gehiago diren Aturrialdeko eskualdean ekialde hertsikoak baino, hots, Zuberotan —edo Amikuzeko Zuberotan— eskusiboak edo semi-esklusiboak diren ezaugarri berriak baino. Bardozeko Celhabe notarioak Bonaparterentzat itzuli katiximan badira tasun berriak, Amikuzeko mintzoaren edo Zuberokoaren eite dutenak. Hona ezaugarri horien sorta bat:

4.4.4.2. Bardoztarrek *u* palatala edo <ü> darabilte Aturrialdean, baina hainbat eragozpen du *u*-k Bardozen hitz-bukaeran eta kontsonante aitzinean palatalizatzen; cf. Lafon (1962: 96) eta Encinar (2008). Bardozen badira hitzak *ü-z* nahiz, palatalizatu gabe, *u-z* ahoskatzen direnak: *ulia* ‘eulia’ & *ülia*. Hitzean bi *u* ondoan direnean aise gertatzen da palatalizazioa Bardozen (EHHA): *bürü*, *mürri*, *pützü*; cf. *zübü* ‘zubi’ berranalizatua ere. Adizkietan ere bai: *nüxü* / *sobera edana nüxün*.²⁸

4.4.4.3. XIX. mendeko Celhaberren Bardozeko katiximak *i-ü* > *ü-ü*-ren etsenpluak dakartza: *bühürtia* (Pagola *et alii* 1999: 277), *lübürü* (278), *ülhün* (315), *ützülia* (277), baina hitz horiek *i*-hasiera dute Bardozen XX. mendeko EHHAn. Egungo Bardozen *bülüzgorrik*, *mürü* ‘mirua’ & *mülü* eta *üngürü* etsenpluak dakartza EHHAk.

4.4.4.4. «Ozena + hersk. ahosk.» c cluster berria dago Aturrialdean morfema-mugan.²⁹

4.4.4.5. Amikuzen legez, Bardozen muga adlatiboko *-radio* dakar katiximak: *akaantchadio* (305), *boulharreta'adio* (285), *orduradio* (281), egun *-raidio* dena.

4.4.4.6. Adlatiboan *-(a)lat* dago Bardozen.³⁰

4.4.4.7. Zuberotan legez, Bardozeko katiximan **edin*-en ahaleko *ei-e* sekuentzia ageri da: *ezteitekena* (288), *deitekezu* ‘daiteke’ zuketan (279).³¹

4.4.4.8. Hiriburun, Mugerren eta Bardozen bai, baina bestenez, Lapurdin ez da Baxenabarre-Zuberotan legez 2. pertsonako *zue* morfema *zie* palatalizatu.

4.4.4.9. Datiboa 2. pertsona. pl. denean *zite* morfema dago Amikuzen: *dauzitet* ‘dizuet’ (Ilharre). EHHAk Beskoitzen eta Mugerren dakar berrikuntza hau eta Duhauk

²⁷ «Lapurdikoa izana gatik, Baxenabartar hizkuntzaren eitea ere badizu, Beskoitzeakoak: Xuberotarrek bezalako molde batzu ere baditugularik, ahoskatze eta soinu desbardinekin haatik!» (Duhau 1993: 13). EAELko lekukoak ere berdintsu: [-Ez da, beraz, lapurtarra?] *-Bien arte; xuberotarrek erran obi die: «hi, hi lapurtarra hiz?», lapurtarrek: «hi, xuberotarra ai(z)?», ba bien arte eo hola...*

²⁸ Jeanne-Marie Mendibil bardoztarrarengandik Trebitsch-ek 1913an bildu adibideetan bi joera ditugu (Etxebarria 1994): *delibatü*, *esposatü*, *gelditü*... batetik, baina baita palatalizatu gabeko *afermatu*, *bildurik*, *ezagutu*... etsenpluak ere. EHHAk bildu datuetan ere bada *ü* Bardozen, baina ez Amikuzen bezainbat.

²⁹ *hentik* & *beentik* (Bardoze, EHHA), *hantik* (Beskoitze, Duhau 1993: 124; Bardoze, XIX-XX), *nuntik* (Bardoze, XIX-XX), *ontu* ‘ondu’ & *hontzen* (Bardoze, EHHA). Beskoitzen *nunko* eta *nuntik* (Duhau 1993: 6).

³⁰ Ez Hazparnen bezala *-a-z* bukatu hitzetan bakarrik, beste bukaeretan ere bai: *sürtsalat*, *itsasolat*, *lékulat* (EHHA). Urketako katiximak *bethiko lorialat eremanak izan guiten* dakar (Pagola *et alii* 1999: 365).

³¹ EHHako Bardozeko F lekukoak *e-e* ereduak dakar, XX. mendean Amikuzen bezala, baina *-te* gabe: *ezteke* ‘ez daiteke’ / *sathorrik eleke behar untsalaz* / *etzeken* ‘ez zitekeen’ / *erraiten du etzekenetz eman*.

eta Irizarrek Beskoitzen. Hiriburun, Beskoitzen eta Bardozen *zite* 2. perts. pl. subj.-marka da ere.

4.4.4.10. *izan*-en pluralgile da *z* Beskoitzen: *bitzauzt* ‘baitzaizkit’ (Duhau 2003: 35), baina Baxenabarren legez, Aturrialdean *z edun*-en pluralgile pleonastikoa da ere.³²

4.4.4.11. Bonapartek *nitien* ‘nituen’ dakar Bardozen, Artolak eta *EHHAk nintien*.³³

4.4.4.12. Baxenabarren bezala, xuketan eta zuketan mintzatzen dira Aturrialdean. Xuketan mintzatzen zitzaizkidan beskoiztarrak 1983an.³⁴

4.4.4.13. Erronkari-Zuberoetan 1. perts. datiboaren morfema errepika daiteke adizkian. Bardozen egun *EHHAk* ez dakar, baina XIX. mendeko katiximak bai: *erraa-zut* ‘erran iezadazu’ (286), *ema’atzut* & *emazkiatzut* ‘eman iezazkidazu’ (316); cf. *-da-* > *-a*.

5. Ondorioak

J. I. Hualderen omenezko idazlan llabur honetan Lapurdiko euskararen aniztasunaren berri dakart, eta, hizkuntza-berrikuntzetan oinarriturik, abiaburutzat eskualdeko lau mintzo-sail aurkeztu ditut: Lapurdiko mendebalekoa, Lapurdiko hego-ekialdekoa, Hazparnealdekoa eta Aturrialdekoa, baina ez ditut behin-betiko sailkapentzat aurkeztu. Izan ere, ez ditugu Lapurdiko berrikuntza guztiak funski ezagutzen, ezta eskualdeetako berrikuntza endemiko guztiak ere: historiaurreko berrikuntza anitz dago eta azterlan gehiago egin behar da horiei buruz. Lau sail horien artean, gainera, berrikuntza-gune gardenak Lapurdiko mendebala, Hazparnealdea eta Aturrialdea dira. Literatura zaharrari esker Lapurdiko mendebaleko berrikuntzak hobeki ezagutzen ditugu. Hazparnealdekoak, berriz, XVIII. mendetik. Aturrialdeko berrikuntzek berrixkoak dirudite, baina ez ditugu XIX. mendetik baizik ezagutzen; *handicap* da hau eskualdeko mintzoa sakon ezagutzeko.

Behar handia dago, bestalde, dialektotzat jotzen den nafar-lapurteraren azterketan sakontzeko ere, haren ezaugarri sendo gehiago ezagutzeko eta aurkezteko. On litzateke nafar-lapurterakoak izateko baldintzak ase ditzaketen ezaugarri berrien sorreraren garaia hobeki ezagutzea: ea hizkuntza-ezaugarri horien konbinazio nagusia garai edo geruza kronologiko jakin bati esleitzen ahal diogun, ala nafar-lapurteratzat jotzen den dialektoa finka dezaketen ezaugarriak garai bat baino gehiagotan sortuak ote diren. Ohi bezala, nabarmena da ikerketa gehiagoren beharra.

³² Lehuntzen *tuzt* ‘ditut’ (Irizar 2002b: 161) eta Beskoitzen *bititut* ‘baititut’ & *bitiuzt* / *tuk* ‘dituk’ & *tuzk* (Duhau 1993: 65-66). Analogikoa da Beskoitzeko *nintuzten* ‘ninduten’ ere (69).

³³ Amikuzen eta Oztibarren bezala, iraganeko *edun*-en Nor Nork saileko pl.-eko 1. eta 2. perts. subjektuen analogiaz, Aturrialdean ere *n* etorri da sing.-eko 1. eta 2. perts. subjektuetara: *nintiin* ‘nituen’ edo *banintu* ‘banitu’ ibiltzen dira Beskoitzen (Duhau 1993: 69, 71).

³⁴ Beskoitzen zuketala alokutiboa dakar Iratzederrek, *duzu* diotela: «*da* erraitea, hazpandar gisa mintzatzea zaiote» (Irizar 2002b: 143). Gizarte-erabileraz ikus Irizar (2002a: 268, 2002b: 134-135).

Bibliografia

- Aranzadi Zientzia Elkartea. 1984-1990. *Euskalerriko atlas etnolinguistikoa (EAEL)*, 2 lib. Donostia.
- Arbelbide, Jean Pierre. 2004 [1890]. *Erlisioea: Eskual-Herriari dohazkon egiarik beharrena*. Iruñea: Nafarroako Gobernuak & Euskaltzaindia.
- Camino, Iñaki. 2022. *Aztergaiak Ipar Euskal Herriko euskararen berrikuntzez*. Bilbo: UPV/EHU.
- Camino, Iñaki. 2023. Aturrialdeko *beskuararen* berrikuntzen kokagune geografikoa. In David Lindemann (arg.), *Miren Azkarateri esker onez*, 97-119. Bilbo: UPV/EHU.
- Celhabe, M. 1999 [1863]. *Güichtiño-dotrina aita Gaspar Astete Jesuistac Españolez iskiibatuc zoumbeit othoitz eta beze gauzaz*. In Rosa Miren Pagola, Itziar Iribar & Juan Jose Iribar (arg.), *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak. Ekialdeko behe-nafarrera 1*, 275-316. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Duhalde, Maitena. 2023. *Lapurdiko itsas hegiko euskararen azterketa dialektologikoa*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.
- Duhalde, Martin. 1978 [1809]. *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean, cembait abisuekin, othoitcekin eta bicitceco erregela batekin*. Donostia: Hordago.
- Duhau, Henri. 1993. *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara*. Donibane Lohizune: Alinea.
- Duhau, Henri. 2003. *Hasian-hasi. Beskoitzeko euskara. Birdena edo bigarren partea*. Donibane Lohizune.
- EAEL = Aranzadi (1984-1990).
- Encinar, Kristina. 2008. Lapurdiko Aturriko euskara: Bardozeko *ü* bokalaz. *Euskera* 53(2). 383-395.
- Epelde, Irantzu. 2003. *Larresoroko euskara*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.
- Epelde, Irantzu. 2004a. Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz. *FLV* 96. 271-303.
- Epelde, Irantzu. 2004b. Larresoroko gaur egungo euskara. *Euskera* 49(2). 663-677.
- Ettxebarria, José María. 1994. Las grabaciones de Viena en euskera. Bajo navarro occidental y bajo navarro oriental. *Mundaiz* 47. 45-75.
- Ettxepare, Ricardo & Larraitz Uria. 2016. Microsyntactic variation in the Basque hearsay evidential. In Beatriz Fernández & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the Grammar of Basque*, 265-288. Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins.
- Euskaltzaindia. 2008-2020. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA)*, 11 lib. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Irizar, Pedro. 1981. *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, 2 lib. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- Irizar, Pedro. 1997. *Morfología del verbo auxiliar labortano*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.
- Irizar, Pedro. 1999. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.
- Irizar, Pedro. 2002a. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental II*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.
- Irizar, Pedro. 2002b. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental III*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.

- Lafon, René. 1962. Sur la voyelle *ü* en basque. *Bulletin de la Société Linguistique de Paris* 57. 83-102.
- Manterola, Julen. 2015. *Euskararen morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.
- Mitxelena, Koldo. 1964. *Textos arcaicos vascos*. Madril: Minotauro. (Berrarg. OC 12, 1-197).
- Mitxelena, Koldo. 1977. *Fonética histórica vasca*. 2. argit. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. (1. argit., 1961; berrarg. OC 6).
- Mitxelena, Koldo. 2011. *Obras completas (ASJUren Gehigarriak 54-68)*, 15 lib. Donostia & Gasteiz: «Julio Urkixo» Euskal Filologi Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU (Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluzen argit.).
- Montoya, Estibalitz. 2004. *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Oihartzabal, Beñat. 1999. Euskarazko irakaskintzaren historia ororen eskolen ildotik, frantses iraultzaren garaiko eskola liburuxka bat. *Lapurdum* 4. 81-105.
- Padilla, Manuel. 2011. Kadet eta Bettiriño edo Yesu Christo eguiatzco Yainco Guizonaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiatzcuen eta sainduien arabera. *XVIII. mendeko eskuizkribu anonimo baten edizio kritikoa eta azterketa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Pagola, Rosa Miren, Itziar Iribar & Juan Jose Iribar. 1999. *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Ekialdeko behe-nafarrera I*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Pregariac Bayonaco Diocezacotz. Ioannes d'Olce Bayonaco Iaun Aphezpicuaren manamenduz ordenatuac eta imprimaraciac*. 1991 [1651]. In Louis Lucien Bonaparte. *Opera Omnia Vasconice III*, 191-215. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zelaieta, Edu. 2008. *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Iruñea-Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo. 1998. Euskalkiak. Gaur. *FLV* 78. 191-233.
- Zuazo, Koldo. 2018. *Sarako euskara*. Bilbo: UPV/EHU.

